



Empar Pineda

«Feminismo
ofizialak
betiereko
biktima
bilakatzen du
emakumea»

- **Donostiako Bigarren Ingurabidea** Azpian harrapatutako baserri, lur eta jabeak
- **Iñaki Martinez de Luna:** «Kontua da jendea jabetzea euskararen trintxeretako borroka zein garrantzitsua den»
- **Jose Antonio Pastor (PSE):** «Diskrezioz jokatuta askoz hobeto joango zatekeen aurreko bake prozesua; orain horixe behar dugu»
- **Alberto Pradilla, *El judío errado* liburuaz:** «Palestinarren aurkako borrokak kohesionatzen du barne ezberdintasunez betetako Israel»



Euskal Herriko eta munduko aktualitatearen argazkia

Oparitu **Argia** harpidetza
independentzia astero ikusten da



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2010eko abenduaren 12a, 2.256. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Txaro Arteaga:** «Serora bat bezala ibili nintzen». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Donostiako Bigarren Ingurabidea.** Desjabetzak, trabak eta hitz egiteko beldurra. GORKA BEREZIARTUA / 5

Pertsonaia

- **Empar Pineda:** «Ez gaude feminismo errebantxista eta ukatzailearen alde». UXUE ALBERDI / 10

Gaiak

- **Alberto Pradilla:** «Bake egoeran, israeldar askok herrialdea utziko luke». MIKEL GARCIA / 16

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Ttakun (h)errenka** Kanta txarrak eta beste. BEÑAT SARASOLA / 22
- **Mila, mila esker!** IXABEL ETXEBERRIA / 23
- **Hiruko txikian** Katalunia. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Leire Olaberria**, urrezko txirrindularia. IÑAKI ZUBELDIA / 24
- **Txandan** Aurrera. ANDONI MUJIKA / 24
- **Zirtak** Ausiabatzen Telebista. J.I. BASTERRETXE / 25
- **Bertso berriak** Durangoko uztari jarriak. XABIER PAYA / 26

Erdiko kaiera

- **Arte eszenikoak.** Emalumeak oholtzan, gizonak erabaki-guncetan. UNAI BREA / 27
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **José Antonio Pastor (PSE):** «Egigurenek agian, iritzi baikorregia du Batasunaz». MIKEL ASURMENDI / 39
- **Iñaki Martínez de Luna:** «Iritzi publikoaren bataila irabazi ezean, euskarak ez du etorkizunik izango». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Abraham Serfaty, judu marokoar gorri menderakaitza. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **La Banda.** TXILLARDEGI / 50



“Serora bat bezala ibili nintzen”

Txaro Arteaga I
Emakume baten ahotsa

Jubilatua bai, erretiratua ez.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Hemen 19 urterekin Parisera joan zena!

Aitarentzat eta anaia zahararentzat infernura joatea zen, baina amak asko animatu ninduen. Primeran bizi nintzen arren, mundua ikusteko irrika neukan, eta bizitzan tren bat pasatzen zaizunean hartu egin behar duzu.

Kazetaritzaren trenak geroz eta bagoi gutxiago ote duen...

Lehen irratian artista izan behar zen informazioa baino gehiago, baina gaur egun, informazioak ludikotasuna hil du. Hori bai, ez dakit zer irakasten den kazetaritza fakultateetan, baina kazetariak formazio politiko eta ideologiko handiagoa behar lukete.

Hedabideak dira formazio politikoak!

Eta bakoitzak nondik egiten duen herren jakinda egin behar zaie kasu. Feministoi itsuak izatea leporatzen zaigu, baina ez, gure bizipen eta sinesmenen betaurrekoetatik irakurtzen dugu mundua.

Emakumeen aurkako tratu txarrak prentsak ongi tratatzen dituen galdetu behar nizin, hain justu.

Telebista desastre hutsa da horretan. Noiz esan behar dugu psikopata eta gaixo mental gutxi, eta “normal” itxurako “anormal” asko dagoela gurean?

Beste gaixotasun mental batzuk sendatzen ditugunean, akaso?

Mikro-matxismoak denetan daude, baita nire sukaldean ere. Erroak saneatzen ez dituguno alferrik kimatuko ditugu adarrak. Erabateko mentalitate aldaketa behar dugu, genero-sis-

tema batean gaudela ohartzetik hasi eta heziketa eraldatzeraino.

Manifestazioak ilegalizatzen eta alarde sexistak baimentzen diren herri batean gaudela ahaztuta, ala?

Bozka kontu bat da dena. Orain dela 50 urte esaten genituenak berrikuntza bezala saltzen badizkigute zer egin behar dugu? Bai herri-gintzan, bai generogintzan, noiz arte erabakiko du beste batek nigitik?

Ikusiko duzu lehendakari emakume bat eta Emakundeko zuzendari gizonezko bat izendatzen dituztenean...

Botere politikoa debalututa dagoelako utzi digute emakumeoi mundu horretan sartzen. Zergatik uste duzu botere ekonomikoa eskusiboki maskulinoa dela? Emakundeko zuzendaritza gizonezko baten esku uztea berriz, enpresarioa sindikatu-buru jartzea bezalakoa litzateke.

Baina ez al ginen hamaika ikusteko jaio?

Sartzen utziz gero lekua egingo nuela pentsatuta, serora bat bezala ibili nintzen jendea banan-banan konbentzitu nahian. Baina nola ireki begiak ikusi nahi ez duenari?

Ez kexatu, zuri behintzat jubilatzen utzi dizute eta!

Ondo merezita! Hori bai, bizitza guztia pasatzen duzu egin behar duzuna egiten, eta egin nahi duzuna egiteko denbora daukazunean, ez dakizu zer egin. Gure ondorengoei guk bukatu genuen puntuan hasteko modua egingo bagenie, sikiera... ■

Donostiako Bigarren Ingurabidea

Desjabetzeak, trabak eta hitz egiteko beldurra

Gipuzkoan egin den azpiegiturarik garrantzitsuenetakoa da, bost hilabete dira zabaldu zenetik, baina ez dira bukatu buruhausteak. Donostiako Bigarren Ingurabidearen obrak egiteko lur asko desjabetu behar izan dira eta terrenoak galdu dituztenetako batzuek oraindik ez dute kalte-ordainik kobratu. Proiektu handi baten azpian geratzen diren historia txikiak dira ondorengo orrietakoak.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

Bittor Lizeaga, Gartziategi sagardotegiaren aurrean. Bizkarrean errepide berria, etxea itzalpean utzi duen berbera.





EKAINAREN AMAIERAN hasi ziren autoak eta kamioiak Donostiako Bigarren Ingurabidearen asfalto marruskatzen. Datu handiekin eman zuen notizia Gipuzkoako egunkari salduenak: 350 milioi euro gastatu dituzte obratan; 4.000 lanpostu sortu ditu eraikuntzak iraun duen hiru urteetan; eta errekorrak ere hautsi ditu kamio berriak, Urumeako bidezubia, 1.000 metrokoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan dauden guztien artean handiena delako.

Lanen amaiera ospatzeko gogoz zeuden beraz Gipuzkoako agintariak ekainaren 25 hartan, goizeko 11etan, errepidearen tarte baten ondoan prestatutako karparen itzalpean. 600 gonbidatu, horien artean Markel Olano ahaldu nagusia, Eneko Goia Bidetako Azpiegituren diputatua eta Borja Jauregi, Bidegiko zuzendari orokorra. Eguraldia ere lagun izan zuten: 23 gradu inguru, oskarbi, euri tantarik ez. Ezerk ez zuen festa eragotzi, ezta karpatik gertu ELA eta LAB sindikatuek eraikuntzako langileen egoera salatzeke egin zuten elkarretaratzeak ere. Fini ziren lanak. Fini, azkenik, ideia bat, lehenengo aldiz 1991. urtean plazaratua eta 2006a arte zementu eta asfalto bihurtzen hasi ez zena.

“Puzzle zaila” osatu behar baitzen, Bidegi Elkarte Publiko Foralaren hitzetan, lanak ondo aterako baziren. Errepide zahar eta berrien katramilatze konplexua, AP-1 eta AP-8 errepideak Donostiaren arku berriare-

kin hartua da gainera irudia. Donostiako Bigarren Ingurabidea goiko errepidea da, baina herriko sarreran *scalextric* baten modura gurutzatzen da beste kamio batzuekin. Eskuineko orrian, bidezubi baten azpiko zutabeak ikusten dira eta tunel berri bateko obrak, airetik erretratututa.

kin elkartu behar zituena, Irundik Eibarrera eta Eibartik Gasteizera ziztuan iristeko. Baina kontu asko egin ondoren, proiektura diru asko bideratu ondoren, zenbaki askorekin burua hautsi beharrean ibili ondoren, azkenik karbono monoxidozko putzak botatzen ari ziren automobilak errepide berrian.

Ospakizunekin buka zitekeen ingurabideaz kontatzeko zegoen guztia. Edo, asko jota, ekainaren 20an “ate irekiko eguna” zela aprobetxatuz zenbait herritarrek egin zuten bezala, errepide berrian oinez edo bizikletaz osteratxoa eginda, bidea behin betiko automobilerik utzi aurretik. Ze, motordun ibilgailuen harat-honata hasten denean, inor ez da harrituko azpiegitura horri buruzko kontuak prentsatik desagertzen badira. Zer dago ba kontatzeko? Errepideak jende gehienarentzat ez dira leku garrantzitsuak. Ezlekuak dira. *Igaro* egiten gara haietatik, inoiz ez dugu *gelditu* nahi; berez, ez gara gelditzen istripurik edo matxurarik eduki ezean. Errepideak ez direlako inorenak. Itxura neutroko afixak. Asfaltoan pintatutako marrak. Abiadura-mugak. Eta askoz gehiago ez.

Baina nahikoa da leihatilatik inguruetara begiratzea, etxeak ikusteko. Baratzeak. Zelaia. Eta errepidetik ikusiko ez balira ere, Galdiano eraikuntza enpresaren webguneak erakusten jarraituko luke, Ingurabidean egin dituzten lanen argazkietan ez baitituzte teilatuak ezkutatzen (parentesi artean esatekoa da, enpresa



horrek Donostiako Ingurabideko lanez gain, Pasaiaiko portuko eta Bilboko “Supersur”-eko obretan ere esku hartzen duela). Behin horiek ikusita ordea, ez da zaila imajinatzea etxe, baratze eta zelai horiek badituztela jabeak. Pertsonak. Hara hor albisteetan ematea ahaztu zitzaizen datua: zenbat jende kaltetu duen errepide berriak. Edo zenbat lur desjabetu diren. Edo norenak diren desjabetutako lurrak.

Erraldoiaren hankak ia zapaldu zuen historia

Galdera horiek Astigarragatik Martutenerako bidera daramate. Han dago Gartziategi sagardotegia. Ondoan, metro gutxira, errepidearen

bidezubi bati eusten dioten hankak. Hemen-dik begiratzea errepidearen gonapean egotea bezala da. Eta ikuspuntu honetatik ehun zangoko erraldoiaren itxura hartzen du azpiegitura berriak; inguruko zelaietan garroak indarrez iltzatu dituen bidutzia; behin etorri-gero, inoiz joango ez dena.

Astelehen goiza da. Neguko lehen izotzak behar baino lehenago etorri dira aurren eta Bittor Lizeagak atea zabaldu bezain laster egiten die bisitariei sartzeko keinua. Sagardo usainak gozatzen du barrua, ezin bestela izan. Baina historia-usaina ere badago: inguruan ditugun upelen artean, 100 urtetik gora dituzte batzuek, etxe hau Astigarraga inguruko



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com



Ezin da zarata argazki batean jaso, baina imajinatu bai. Edo, ezkerreko etxean bizi direnen kasuan, pairatu.

eraikinik zaharrenetarikoa baita. XVI. mendeko dokumentuek esaten dute garai hartan, dagoeneko, sagardoa egin eta edaten zutela pareta hauen artean.

Bost axola hori Ingurabidearen lehen proiektua prestatu zuenari: hasierako traza-tuak erdi-erditik zeharkatzen zuen etxea. Botako zuten, monumentu historiko izateak salbatu izan ez balu. “Prensatik enteratu ginen gu” dio Lizeagak “eta gero hasi zen Diputazioa desjabetzei buruzko gutunak bidaltzen”. Urteak pasa dira. Sei bat bai, Lizeagak zehazki gogoratzen ez badu ere. Eta proiektua martxan jarri zenean ez zen Aldundiko inor etorri ingurua nola zegoen begiratzera. “Alegazioak egitean-eta bilerak eskatu genituelako hitz egin dugu beraiekin; baina gainontzean etorri, beraiek... Lehenengo aldiz makinekin etorri ziren, sagastia botatzera eta dena txikitza, inolako abisurik gabe. Egun batean azaldu eta arbolak botatzen hasi ziren”. Lur asko galdu dituzte, bai Lizeagak berak, baita anaiak ere. Aitonarenak izandako terrenoak anaiartean banatuta zeuzkaten, eta bakoitzaren parte bat jan du errepideak. Bitorrek sagastiaren puska handia galdu du. Anaiak, garai batean basoa zen terrenoa.

Eta lurak kentzeaz gain, errepideak beste- la ere eragin dio sagardotegiari. Kaltea estetikoa ere bada. Kanpotik zetorrenak etxeari planta bat hartzen zion lehen; orain beste bat, diferentea eta, itsusiagoa. “Lehen hau leku rurala zen” azaldu du Lizeagak, “sagardotegi bat, baserri-itxura zeukana... Eta errepide

honek dena izorratzen du”. Harritz egindako pareten gainetik porlanezko egitura lauak. Belarraren gainetik asfalto. Tximiniari darion kearen gainetik, kotxeei dariena. Ez dago orekarik: inurria da Gartziategi, Ingurabidearekin konparatuta. Ozta-ozta zapalduta hiltzetik salbatu bazen ere, hankapetik kendu ezinda geratu da.

Kantak esaten zuen, ez duela berdin berotzen eguzkiak oinpean dagoena. Hori da errepidearen beste kalte isiletako bat: itzala. “Neguan 12ak pasa arte itzalean egoten gara orain, eta gaur bezala izotza egiten badu, ez da joaten eguerdira arte. Sagastiari ere itzala egiten dio. Eta itzalak ematen dion arbo-

lak ez du produkzio bera. Berez, sagastia egutera da, baina orain eguteren zati bat ospela bihurtu da”. Horri buruzko alegazioak egin zituzten bere garaian. “Kasu askorik ez dute egiten. Erantzunak beti dira berdinak: idatzi batzuk edukiko dituzte, pentsatzen dut. Ateratzen dute fotokopia, erantzuna ezezkoa, betiko arrazoiak eta kito”.

Baserri aurreko zati bat ere kendu diote eta horrek bereziki eragiten dio sagardotegiari, orain berea ez den puska horretan deskargatzen baitute sagarra eta pasatzeko bidea berentzat edukitzea eskatzen ari da obrak hasi zirenetik. “Hitzez esan digute, baina idatziz sekula ez, hori libre egongo denik. Klaro, guretzat hori da arazo printzipala, ez dauka- gulako beste lekuri sagartoki horretara sarrera egiteko. Hil ala bizikoa da. Hori kentzen badigute ezin dugu sagardorik egin”. Ari dira hizketan Aldundiarekin problema konpontzeko. “Baina ikusten duzu noiz? Dena eginda, bukatuta, dagoenean”.

Lizeaga kexatu da lanek iraun duten bitartean obren arduradunekin hitz egiteko izan diren zailtasunez —ez da bakarra, beste zenbait kaltetuk ere problema bera seinaltatu dute—. Obran bertan lanean aritu direnekin konpondu ditu sortzen joan diren problemetako asko. Terrenoa okupatzen ziotela eta telefonoz deika hasi behar. “Konponduko dugu, konponduko dugu” esaten zuten eta azkenean harrapatu nuen zulatzeo makinarekin zebilen langilea eta esan nion ‘alde hemendik, bestela salatu egingo zaitut’. Hor- tik aurrera, segituan etorri ziren Bidegikoak,

eta orduan bai soluzionatu zuten: alokairua pagatu zidaten terreno puska hori harrapatu zutelako”.

Hitz egiteko beldur

Eguraldia asko aldatu da errepedea zabaldu zuten egunetik. Ekainaren 25eko eguzkitan zeuden Gipuzkoako agintariak, baina Lizeagak azaroaren 29ko hotzetan esan ditu erreportaje honetakoa. Bost hilabete. Bitartean trafiko handia hartu du Donostiako Bigarren Ingurabideak eta autoen dentsitatea puztu ahala hustu dira kamioari buruzko albisteak eguneroko prentsan. Zer kontatua falta ez den arren. Desjabetzeak jasan dituzten askorentzat arazoa ez baita bukatu. Elkarriketaren bukaera aldean Lizeagak esplikatu du oraindik ez duela kobratu lurrengatik Aldundiak ordaindu behar dion diru guztia. Erakunde foralak hasieran jarritako prezioa baino ez du pagatu momentuz, eta falta dena negoziatu egin beharko du.

Antzera dabilta beste hainbat ere, eta horrek bi ondorio ditu, gutxienez. Bat: desjabetutako pertsonentzat, abokatuekin bileraz bilera ibili beharra, galdutako lurren trukean diruren bat ikusi nahi izanez gero. Bi: gaia landu nahi duen kazetariarentzat leher gaizto egiterainoko konplikazioak.

Lizeagaz gain beste lau lagunekin hitz egin baita artikulu hau osatzeko. Denei kendu dizkiete lurak eta gainera nabarmen aldatu da bizi diren edo lan egiten duten ingurunea. Enpresa baten kudeatzaileak dio bideko lanek asko eragin diotela eguneroko jardunean eta eragindako galerak ez dituztela inon aurreikusi. Baserri baten jabearekin hitz egin da azaldu du nola Ingurabideak lurak erdibitu dizkion. Jatetxe bateko nagusiak solasaldi luze batean dio errepedeak ia isolatuta utzi duela bere negozioa, asko nabaritu duela,

**Baserri baten jabeari lurak
erdibitu dizkio Ingurabideak.
Jatetxe bat erdi-isolatuta utzi du.
Eta errepedearen erruz
etxea galdu du beste lagun batek**

orain jende gutxiago joaten dela bazkaritara. Aurkitutako kasurik larriena, errepedearen erruz etxea goitik behera bota dioten gizonarena. Urte askoan aritu da hori ez gertatzeko ahaleginetan, saiatu da egunkarietan bere problema azaltzen, baina apenas eskaini diote arretarik. Eta etxea kendu azkenean, karrete-
ra egiteko.

Lau lagun horietatik batekin (enpresaren kudeatzailea) ezer ez argitaratzeko baldintzarekin hitz egin da. Beste birekin (lurra bitan banatu dioten baserritarra eta etxerik gabe geratu den gizona) hitzordua jarri zen euren kasua sakonago azal zezaten. Aurrenekoak handik gutxira deitu zuen, esanez abokatuarekin kontsultatu ondoren nahiago zuela ezer ez publikatzea. Bigarrenak ere deitu zuen, zita jarria zegoen egunean bertan, hobeto pentsatu zuela eta nahiago zuela ez hitz egin. Errepedeak kasik isolatu duen jatetxeko nagusiarekin berriz, elkarriketa egin, egin zen. Ordubetik inguruko grabazioa. Detaile handiarekin azaltzen zuen nolako egoeran geratu den errepedearen eraginez, ez bakarrik negozioa, baita familia ere. Baina erreportajerako argazkiak ateratzeko atzera harenganatu, eta esandakotik ezer ez publikatzea nahiago duela esan du.

Antzeko arrazoiak gehienek: oraindik ez dute desjabetzearengatik zor zaiena kobratu eta nahiago dute problema gehiago ez eduki. Ulertzekoa da beldurra. Denbora gutxian euren terrenoetan hondeamakinak sartu dira, lurak galdu dituzte, kaltea egina dago, ez dute trukean ezer jaso gabe geratu nahi. Prozedurak asko erraztu du azpiegituraren propaganda; kontrako iritzia ematea zaildu duen bezainbeste. Beraz, inauguratu eta bost hilabetera, errepedearen zarata bakarrik entzuten da. Eta desjabetu gehienak isilik egongo dira, azpiegitura honekikoak behingoz bukatzeko zain. ■

Oxangoiti
Hotel Jauregia

Gamarra kalea, 2
Lekeitio (Bizkaia)
94 465 05 55 / 659 393 928
www.oxangoiti.net



Empar Pineda

«Ez gaude feminismo errebantxista eta ukatzailearen alde»

Nork esan zuen nor izatea erraza zenik? Nork nori nor?

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Nola gogoratzen duzu Hernaniko haurtzaroa?

Erabat oroitzapen zoriontsuak ditut. Asko gogoratzen naiz aitona-amonen baserrian igarotzen nituen aldiez: aitona petrikiloa zen, eta baserriz baserri laguntzen nion gaixoak sendatzera. Aitonarengandik ikasi nuen zein ederra den sendatzea. Kalearen oroitzapen zoragarriak ere baditut: jolasean nola aritzen ginen. Nire jolasik gogokoenak ez ziren bereziki femeninoak, alderantziz. Amak harategia zuen Hernanin, eta bezeroek hala esaten omen zioten: “Hor dabil Amparito, orain ere ipurdia burua baino gorago!”. Beti ari bainintzen txapetan, lapetan (kromoekin)...

Zure aktibitate politikoa Francoren diktaduraren azken urteetan hasi zen Mugimendu Komunistaren baitan. Baina laster bihurtu zinen ekintzaile feminista. “Militantzia antifrankistan urte asko eman ondoren, feminismoaren aldera lerratu nintzen 1975ean” diozu. Nola joan zinen osatzen politikoki, ideologikoki eta identitarioki? Bitxia da. Batetik, lesbiana nintzen, baina ez nintzen berandura arte ohartu. Tira, ohartu bai, baina ez nion izenik jartzen. 1964an jarri nion izena, 20 urterekin. Fakultateko lagun batek esan zidan: “Amparo, utzi lagun intimoen txorakeria horiek, faborez, zu goitik beherako lesbiana zara”. Ordura arte ere ez nuen gaizki bizi nire lesbiana izaera, baina ez nuen esaten. Bizitza bikoitza nuen: batetik, Madrilen ezagutu nituen lesbianekin ibiltzen nintzen, haien etxeetan geratzen nintzen... Eta bestetik, giro hartatik kanpoko bizitza zegoen. Niretzat, feminismoa deskubritzea, nire borrokalari, justiziagile eta askatzaile sena, emakume izatea eta lesbiana izatea

uztartzeko eta bideratzeko modua aurkitzea izan zen. Lehen aldiz, emakume gisa afirmatu nintzen, ordura arte ez bezala.

Ordura arte nola bizi zenuen zure emakume izaera?

Umetan ez nintzen gutxietsia sentitzen, saltsa guztietako perrexila nintzen. Ez nintzen gutxietsia sentitu ez Hernanin, ez eskolan, ez unibertsitatean..., ezta unibertsitateko elkarte klandestinoetako parte izan nintzenean ere. Mugimendu Komunista baino lehen, Federazio Komunista izeneko elkarte sortu genuen. Erakunde hura Mugimendu Komunistarekin elkartu zen, eta zuzendaritzan sartu nintzen. Han ere, kideak berdinetik ber-

Nortasun agiria

Empar Pineda Hernanin jaio zen 1944an. Erdi euskalduna, erdi katalana, Madrilen bizi da aspalditik. Filologia erromanikoa ikasi zuen, eta Francoren diktaduraren azken urteetan Mugimendu Komunistaren buruetako bat izan zen. 1975ean, Franco hil berritan mugimendu feminista ezagutu zuen, eta ordutik emakumeen eta lesbianen askatasunerako borrokan ari da. Kataluniako koordinakunde feminista sortzen parte hartu zuen eta Madrilgo lesbiana feministen kolektiboaren sortzailea izan zen. Urte askoan, Madrilgo Isadora klinikan egin du lan eta *Otras voces feministas* (Beste ahots feminista batzuk) korronteko partaideetako bat da.





dinera sentitzen nituen, ez nintzen diskriminazioaz jabetzen, eta pentsa, Mugimendu Komunistako kideok ez genuen kontuan hartzen, ezta teoriar ere, marxismoaren fundatzaileek emakumeon askapenerako borrokan ordura arte esandako apurra. Ezta apur hura ere. Horregatik, 1975. urtean dena hankaz gora jarri zitzaigun, izugarritzko iraultza ideologikoa izan zen, txiribuelta ideologiko ikaragarria. Dena aldatu zen. Orduko kide batek, oraindik ere oso lagun dudakazetari galiziar batek beti esaten duen bezala, “ezer ez zen berriro lehengoa izan”. Inoiz ez. Feminismoa gure bizitzan sartu zenetik ezer ez da sekula lehengoa izan. Hain identifikatuta sentitzen

naiz emakumeon askapenerako borrokarekin, ezinezkoa bailitzaidake nire bizitza kontatzea, edo aurrera begira nire bizitza pentsatzea kontzientzia hori kontuan hartu gabe. Mundua angelu honetatik ikusi duenak badaki dena aldatzen dela, eta behin betareko hauek jantzita ezinezkoa zait ezikusiarrena egitea, nire identitatearen parte da begirada feminista, sakon-sakonean.

35 urte igaro dira emakumeen eskubideen eta askatasunaren alde borrokan hasi zinetik. Nola ikusten duzu mugimendu feminista gaur egun? Oparoa izan da belaunaldien arteko transmisioa?

Guk 70eko hamarkadaren amaieran aurkitu genuen egoera eta gaur egungoa ezin dira konparatu. 40 urtetako frankismotik gentozen, eta frankismoaren arrastoak zeuden leku guzti-guztietan: hezkuntzan, kulturean, baloreetan, familian... Garai hartako emakume eredu frankismoko sekzio femeninokoena zen, pentsa. Ikaragarri borrokatu behar izan genuen erabat oinarritzkoak diren kontuak lortzeko; esaterako, emakumeok ere izaki sexualak garela aldarrikatuz. Guri ere sexua gustatzen zaigula, eta ez goxotasuna eta mimoak bakarrik, sexua ere baietz. Gizonezkoei esaten genien beren sexualitatea ez zela uholde kontrolagaitz bat, mendian jaio eta bere bidean dena eramaten zuena. Esaten genien haiek ere bazutela kontrolatzeko gaitasuna, eta neska bat minigona jantzita joateak ez zuela justifikatzen uholde ustez kontrolagaitz hura. “Ipuinik ez”, esaten genien. Beraz, garai hartan aurkitu genuen egoeraren aurrean hainbat borroka genituen, hainbat fronte irekita, bizitzako alor guzti-guztietan. Pixkanaka, gauza batzuk lortzen hasi ginen, gutxi, baina batzuk bai. Batzuk %60an, beste batzuk %40an... Pixkanaka aurrerantz gindoazen. Nik uste dut %100ean lortu dugun gauza bakarra gay eta lesbianen ezkontza eskubidea izan dela. Bizitza publikora 30 urte beranduago jaio diren



Hondarribia

Abenduaren 16tik 21era, San Pedron

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

emakumeak lorpen asko erdietsita daudela jaio dira eta, beraz, ezberdina da errealtateari aurre egiteko modua.

Gaur egun zailagoa da diskriminazioa ikustea?

Oraingo neska gazteek ikusten dute ez dagoela debekatzen zaien lanposturik (nahiz eta kristalezko sabaia oso baxu dagoen, baina hori ez da asko hurbildu arte ikusten), ez dagoela debekatzen zaien ikasketarik, antisorgailuak ez daudela debekatuta, abortuaren gaineko debekua ez dela erabatekoa, eta batez ere, emakumeok sozialki kontuan hartuak garelako ikusten dute, ez bigarren sexu gisa, bigarren mailako hiritar gisa, pertsona oso gisa baizik. Emakumearen Institutua ere sortu da, eta administrazioak kontuan hartzen ditu emakumeen aldarrikapenetako batzuk. Hori oso garrantzitsua izan da: gure garaian feministok ginen emakumeentzako eskubideak eskatzen eta aldarrikatzen genituen bakarrak. Egoera aldaketa horrek aldatu egin du feminismora hurbiltzeko modua. Esango nuke, mugimendu feministak, gaur egun, ez duela 70eko hamarkadaren amaieran zuen pisurik, batzuetan mugimenduaz hitz egiten ere ez naiz ausartzen. Badaude erakunde feministak, haietako asko gai oso zehatzak lantzen, eta aldian behin leherketak gertatzen dira: iaz Granadako jardunaldi feministetan, adibidez. Bat-batean, hutsetik bezala, 4.000 emakume feminista elkartu ginen Granadan, adin guztietakoak, eta hori energia da zainetan, baina indar hori mantendu egin behar da urte sasoi eta txoko geografiko guztietan, eta sareak gehiago indartu behar da. Hasieran, oso kanpaina zehatzak eta indartsuak egiten genituen: dibortzio eskubidearen aldekoak, abortu eskubidearen aldekoak... Oraingo erronkak zailagoak dira, ez baitira hain agerikoak, eta jendea ondo azaldu behar zaizkio.

Zer da emakume gazteok zaharragoengandik ikasi behar genukeena? Eta alderantziz?

Oso galdera interesgarria. Nik beti esaten dut: edo transmisio hori egitea lortuko dugu, edo gurea belaunaldien arteko abentura soila izango da. Eta madarikatua feminismoa belaunaldi baten abentura bilakatuko duena!, batez ere, oraindik ere egiteko gauza asko gelditzen direlako. Elkarrengandik ikasi behar dugu. Gure belaunaldikook umiltasun handia izan behar dugula uste dut: burutik kendu behar dugu guk urte asko daramatzagula, esperientzia handia dugula eta gazteek, iritsi berriak direnez, guri entzun behar digutela. Hori akats barkaezina litzateke. Askok ere umilagoak izan behar dugu, eta prest egon behar dugu gure ideiak berrikusteko. Batzuetan, orduko kideekin elkartzen naiz eta esaten diet “zer ordu da?” eta esaten didate “seiai pasatxo” eta esaten

Homofobia

“Homofobia kasu asko topatu daitezke. Marika tipiko eta topikoaz barre egitea klasiko bat da, baina beste era asko daude, sutilagoak, zeharkakoak. Txiste homofoboak behin eta berriz entzuten ditugu telebistan, eta ez da ezer gertatzen. Askotan esaten dut: taberna bateko barran norbaitek txiste homofobo bat egin eta gizon ezko batek moztzen dion egunean aurre-rapen handia izango da. ‘Ez zait gustatu’, nahikoa da hori esatea, baina gizon gehienak ez dira euren deserosotasuna adieraztera ausartzen, haiek ere mariken taldean sartuko ote dituzten beldurrez-edo, *matxoei* zor zaien errespetuz-edo. Eta berdin txiste edo eraso matxistekin ere, gizonak bilakatzaren direnean gizonen termometro, aurrera egingo dugu. Hedabideen isiltasuna ere homofobikoa izan daiteke ikusezintasuna eragiten duen heinean. *Matxote* bat ez den mutikoa arrastoan sartzeko modua da oraindik ere homofobia, maskulinitatearen eraikuntzarako ardatza”.

diet “aizu, duela 30 urte gelditu zitzaizun ordularia!”. Ez bagara izan diren aldaketak ikusteko gai, alferrik gabilta. Borondate handia izan behar dugu lekukoa pasatzeko. Jakin egin behar da lekukoa garaiz pasatzen, eta ardurak besteren esku uzten, bestela oso feminista jakintsuak izango gara, baina gurekin batera lurperatuko dugu feminismoa.

Eta emakume gazteei dagokienez?

Gazteei zaharragoenganako tolerantzia eskatuko nieke. Badakit batzuetan amona-burruntzi bilakatu gaitezkeela *batalitak* kontatuz etengabe, baina, zer egingo diogu, zahartzen ari gara eta bakoitzari berak bizi izandakoa kontatzea gustatzen zaio... Baina tira, pazientzia pixka batekin... [barrez] Uste dut gazteentzat interesgarria dela gure belaunaldiak emakumeen askapenerako egin zuenetik ikas-tea. Ez gauza bera errepikatu dezaten, nondik datozen jakiteko baizik, eta batez ere, ez ahazteko ez zaigula inoiz ezer debalde eman. Lortu dugun guztia gure borrokarekin lortu dugu, ezer ez da zerutik erori.

Gaur egun, badirudi, genero ikuspegia barnerratu dela hainbat alorretan. Baina kontzientzia feministarik, kontzientzia askatzailerik badago? Ala “moda morea”k gehiago du azalekotik?

Mugimenduaren parte garenok oso barnerratua daukagu kontzientzia askatzailea, ez gara despistatzen, baina egia da zaila dela zabal-tzea. Ez dago lehengo indarrik. Eta indar hori beharrezkoa da aldarrikapen batzuek jarraipena izan dezaten, berriak sortu daitezen, kontzientzia feminista zabaldu dadin, feminismoa berriro dadin, gobernua saldu bai, baina hutsean uzten dituen asmoen aurrean altxa gaitezen... Ezin dugu ahaztu zenbait gauza ondo egin dituztela gobernu-tik, baina asmorik gehienak erdibidean edo asmo hutsean geratu dira aurrekonturik ez dutelako, edo autonomia erkidego batzuek ez dutelako gobernu zentralak dioenari buruz ezertxo ere jakin nahi, edo oposizioaren aurrean beldurtu egiten direlako... Horregatik, feministok hori egon behar dugu, faktore askoren aurrean atzera egiten baitu gobernu zentralak berak ere. Hor ez bagaude atzera-pausoak izango dira berriz.

“Beste ahots feminista batzuk” korronteko kide zara. Feminismo hegemonikoaz gain feminismo periferikoak ere badirela ulertu behar dugu?

Feminismo bat baino gehiago daude. “Beste ahots feminista batzuk” iritzi-korrontea da, 2006an sortu zena feminismo ofizialari erantzun gisa. Gure iritzia eman genuen PSOEko Gobernua lantzen ari zen indarkeria matxistaren legearen erreformei buruz, dibortzioei

buruz, dependentzia-legeari buruz... Ikaratu egiten gintuen indarkeria matxistaren inguruan Gobernu hartzen ari zen jarre-
rak: pentsamendu erabat zigortzailea ari zen nagusitzen, gizonen gaitz guztien irtenbide bakarra kartzela balitz bezala. Berriro ere esentzialismora itzultzeko arriskua ikusten genuen. Bazirudien gizona izate hutsagatik, esentziaz gaiztoa izan behar zela: erasotzailea, hiltzailea emakumeekiko harremanetan... Eta emakumeak, aldiz, denak onak, atseginak eta kaltegabeak. Ezin genuen halako joerarik onartu: hasteko, inor ez da den bezalakoa naturaz, esentziaz. Egin egiten gara. Ez dezagun Simon de Beauvoir zaharra ahaztu. Eta ezin dugu ahaztu mugimendu feministak, hastapenetan, izugarrizko borroka egin zuela espetxe politikaren aurka. Eta orain badirudi kartzelaz betetako Estatu bat nahi dugula, bertan gizon gaizto guztiak sartu ditzaten. Faborez! Hori ez da gure eredu. Asko haserretu gintuzten feminismo ofizialeko jarrera horiek eta horregatik erabaki genuen feminismoaren pentsamendu kritikoa-
ren sarea osatzea. Gu ez gaude feminismo ukatzaile eta errebantxistaren alde. Feminismo ofizial horrek betiereko biktima bilakatzen gaitu.

Defendatzen duzuen feminismoak biktimizazioaren aurka egiten du lan?

Jakina. Feminismo ofizialean badirudi emakumeok ez garelako gure burua zaintzeko gai, badirudi etengabe babestu behar gaituztela. Feminismoarekin hasi ginenean, egin genuen lehen gauzetariko bat frankismoko lege faltsuki protekzionisten aurka errebelatzea izan zen. Argi utzi genuen emakumeok ez dugula gain-babes hori behar, ez digula onik egiten, ez digula hazten eta autonomo izaten uzten, ez digula boterea hartzen uzten. Tresnak behar ditugu autonomoak izateko, gure burua askatzeko adina botere hartu behar dugu gure eskuetan. Ez dugu beti “aita estatua” rengana babes eske joan nahi. Ez da “aita estatua” izan behar gizonen erasoetatik babestuko gaituena. Heziketa eta prebentzioa dira bideak, baina badirudi bide ukatzai-



AZKEN HITZA

Tratu onak

“Ez dut esango intentzio gaiztoz egiten denik, baina tratu txarrek izaten duten kazetaritza tratamenduak lehenago kritikaturiko irudiak indartzen ditu: biktima gaixoaren irudia eta gizon gaizto erasotzailearen irudia. Eta bakoitza bere rolean betikitzen du: erasotzailea betiko izango da erasotzaile, eta biktima betirako biktima. Ez dio inori onik egiten. Tratu txarrei buruzko albiste gehienak hilketa bat gertatu denean baino ez dira iritelen azalera, normalean ez zaie ahotsik ematen subjektu gisa hitz egiteko gai diren emakumei. Tratu txarrekin lotuta hedabideetan emakumeren bat azaltzen den bakoitzean edo hilda dago edo biktima gajo gisa azaltzen da. Ekin diezaiozun arazoari errotik: heziketatik eta prebentziotik. Bai neskak eta bai mutilak tratu oneko harremanetan hezi behar ditugu”.

lea eta errebantxista hautatu duela Gobernuak. Ez zaie tratu txarrak jasan dituzten emakumei entzuten. Biktima gajo horiek esateko dutenak batere garrantzirik ez balu bezala. Berdin da tratu txarrak jasan dituen emakumeak babes agindurik ez duela nahi esatea, “aita estatua” baietz erabakitzen du eta kito. Adin nagusikoak gara! Ezin gaituzte haur txikiak bagina bezala tratatu. Betiereko biktima bilakatzen gaituzte. Eta horrela ez goaz inora. Emakume biktimaren paperak izua ematen digu, beti babesa behar duten emakumeak, noiz salbatuko dituzten zain... Ez dago patriarkatuaren tzat elikagai hoberik.

Zer da feminismoak gizonezkoei eskaintzen diena?

Ez nintzateke feminismoaz orokorrean hitz egitera ausartuko, esan dizudan bezala, batzuek kartzela eskaintzen baitiete. Baina mugimendu feministak, nik ulertzen dudana bezala, eta hau izan da beti mugimenduen nukleoa, zoragarria iruditzen zaidan zerbait eskaintzen die: beraien maskulinitasuna beste era batean eraikitzeko eta bizitzeko aukera, emakumeekiko harremanak berrasmatzeko aukera, boterea beste era batean bizitzeko aukera. Horrek esan nahi duen guztiarekin. Maskulinitasun prototipikoaren eskola kentzeak eman diezaiekeen zorientasun eta asebetetze guztia eskaintzen die feminismoak: sentimenduak agertu ahal izatea, haurren eta nagusien zaintzaz

gozatu ahal izatea, jolasteko, gozatzeko, hunkitzeko eta dantzatzeko eskubidea berreskuratzea, beti serio eta ziur agertu beharra albo batera uztea... Maskulinitasun era berriak probatzea, deseraikitzea eta eraikitzen hastea. Maskulinitasunarentzat eremu debekatuak izan diren sareetara sartzeko aukera. Han-hemenka zabaltzen ari diren gizon-taldeetan lan handia egiten ari dira zentzu honetan. Eta feminismoetik gizonentzako mezua berrikusi behar dugu, eta haiei eskaintzeko daukagun guztia azaldu, proposamen konkretuak eginez. ■

argia.com Feminismoa, abortua eta beste hizpide, gure webgunean.

Elhuyar, zientziarekiko jakin-mina
asetzeko formulak:

$\int$ 10 urte
8 urte



[Esperimentuak + Zz izpiak]
 $dx =$ Armix max mix

$\int$ ∞ urte
16 urte

[Zientzia-
dibulgazioa +
Z izpiak] $dx =$
Sendabide ala Iruzurbide



$\int$ 16 urte
12 urte

[Abentura zientifikoa
+ ZzL izpiak] $dx =$
Simon Bloom,
grabitatearen zaindaria



www.elhuyar.org/edizioak



Liburu
elektronikoan
ere eskuragarri



ELHUYAR
fundazioa

• Alberto Pradilla •

«Bake egoeran, israeldar askok herrialdea utziko luke»

Azken bi urteotan, Alberto Pradilla kazetari iruindarrak (1983) Israel-Palestina gatazkaren berri eman du hainbat hedabidetan. *El judío errado* liburua kaleratu du orain, Israelgo gizarteari buruz. Palestinarrez asko hitz egin da, baina gutxi dakigu israeldarren barne-gatazkez, kontraesanez, gorrotoaz, eragin erlijiosoaz, segurtasunarekiko obsesioaz... eta Pradillak beharrezkoa deritzo haiei entzutea, ez israeldarrak justifikatzeko edo konprenitzeko, tragediaren dimentsioa ulertzeko baizik.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Irantzu Pastor

PRADILLAK ez die israeldarrei ahotsa eman eta kito, testuingurua eta kazetariaren analisi sakona lagungarri dira irakurlea gizarte konplexu horren aurrean kokatzeko. Azken finean, kontraesanez betetako estatua aurkeztu digu liburuak, beti gatazkan (erlijiosoak eta laikoak, eskuindarrak eta ezkertiarak, herrialde oso ezberdinetatik iritsitako juduak...).

Estatu bateratuaren irudia heltzen zaigu, baina barne-tentsioak eta eztabaidak ugariak dira.

Estatu koloniala izanik, bere burua eskusiboki judutzat definitzen duena, mundu guztitik etorritako juduen immigrazioa bultzatu da —ez beti modurik onenean— eta horrek ezberdintasun sozial handiak sortu ditu: herrialdeko erakunde nagusiak betitik kontrolatzen dituen elite europarra; herrialde arabiarretatik iritsita-koak, bigarren maila batean, nahiz eta gehien-goia izan; eta are baztertuago, hirugarren mailan, Etiopiatik heldutako juduak. Laiko eta erlijiosoen artean ere zatiketa handia dago, Europara begira bizi nahi dutenen eta geroz eta gehiago diren eta pisu handiagoa duten erlijiosoen artean. Azken horiek arau erlijiosoak herritar orori inposatu nahi dizkiete. Adibidez, Israelen ez dira ezkontza zibilak existitzen.

Erljioaren eta ultraortodoxoen boterea handia da, beraz.

Bai, eta kurioa da, Israelgo Estatua eraiki zuten liderrak laikoak direlako, baina erlijiosoen laguntza behar dute Estatua babesteko. Irudi txarra emango luke errabinoek bere burua judutzat duen Estatua ez babestea,



Goian, Pradilla Israelen. Hurrengo orrian, israeldarrei azken bi urteotan ateratako argazkiak. Erljioaren eragina nabaria da Israelen, gobernuak osatzeko talde erlijiosoen babesa behar izaten delako.

horregatik erlijiosoei hainbat eskakizun onartu zaizkie, eta euren boterea indartu dute. Politika israeldarra multipartidista da, partidu asko daude parlamentuan, talde etniko eta erlijioso bakoitzak bere partidua dauka eta erlijiosoak beti dira beharrezkoak gobernuak osatzeko. Hala, erlijiosoek pribilegioak dituzte, gobernuak subentzionatzen dituela esan daiteke, hainbat familiari errezatzeagatik ordaintzen zaie... eta laikoek oso gaizki ikusten dute hori dena.

Bai, liburuan kontatzen duzu adibidez jai egunetan debekatua dagoela ezer egitea eta hainbatek ez duela ongi ikusten hainbesteko eragin erlijioso, ekonomiarentzat kaltegarria delakoa. Hain giro itogarrian, erlijiosoen botereak indarra gal dezake?



Indarra galtzen ari direnak laikoak dira, batez ere palestinarren aurkako gatazkan nazional-erlijiosoak (mugimendu ultraeskuindar bio-lentoa) direlako boterea lortzen ari direnak. Beraien diskurtsoa da gizarte israeldarrean pixkanaka barneratzen ari dena: “Hau da Jainkoak eman digun Lurra eta gu hemen gaude Abrahamek duela 3.000 urte Lur hau agindu zigulako”. Bestetik, esan bezala Gobernuaren ardura ugari hartu dituzte eta ondorioz pribilegioak lortzen dituzte eta arauak ezartzeko aukera dute. Gure hedabideei kasu eginez, badirudi fundamentalismo bakarra dagoela, islamikoa, baina ez da hala, eta argi utzi nahi nuen juduen artean ere badela fundamentalismorik.

Baina ezberdintasunak ezberdintasun, herritar guztiak batzen dituen kontzeptua, eztabaidaezina, Estatu juduaren defentsa da.

Hori da. Estatu demokratikoa eta judua, hala definitzen du bere burua, kontraesankorra dirudien arren. Baina demokratikoa da juduentzat eta judua palestinarentzat, judu bezala definitzerakoan, ez diren haiekin baztertzaila baita –milioi eta erdi palestinari bizi dira Israelen–. Apartheid garaiak Hego Afrika zuriaren parekoa da, ez da onargarria, onargarria ez litzatekeen moduan begi urdinen Estatu bat, edo ilehorien Estatuak... Eta hala ere, nazio adostasuna palestinarren aurkako borrokan ia erabatekoa da gaur egun. Gogoratu 2008-2009ko Gazaren aurkako erasoak, herritarren %95ek txalotu zuten, Gaza ingurukoak piknik moduan hurbiltzen ziren bonbardaketak ikustera! Gaixo dagoen gizartea da.

Baina zer da judu izatea, euren hitzetan?

Erlijioaren arabera, judua da ama juduarengandik jaiotakoa, baina israeldarra izateko,

“Antisemitismoa Israelenganako kritikarekin nahastea da Estatuaren garaipen handienetakoa. Horrek estigmatizatu egiten du edozein disidentzia, edozein kritika”

“Segurtasunarekin obsesionatuta dagoen gizartea da, erabat militarizatua. Arriskua etengabekoa dela sinetsarazi diete eta segurtasunaren industria puntakoa da Israelen”

definizioa zabaltzen dute eta beraien legeak dio aita, ama, aitona edo amona judua duen edonork lor dezakeela hiritartasuna berehala. Hori betetzen ez duena bizitza publikotik baztertuta, apartheid egoeran bizi da.

Apartheida asko aipatzen da liburuan. Hego Afrikarekin alderatu daiteke, hortaz? Han jarraitu zuten bidea baliagarria izan daiteke?

Antzekoa da, eta geroz eta handiagoa da segregazioa, baina berezitasunak ditu. Batetik, Zisjordania eta Gaza bihurtzen ari dira Hego Afrikan beltzentzat egin zituzten batustanen pareko: indigenak bizi diren guneak, blokeatuak, isolatuak eta eskulan merkerako aukera. Baina Estatu barruan ere, diskriminazio politika egiten da, palestinarrak kanporatzeko edo gutxienez nagusitasun judua mantentzeko azken helburarekin. Nabaria da adibidez Galileako herrietan, non palestinarrak diren gehiengoa, edo Neget-eko basamortuan, non 60.000 bat beduino bizi diren eta eraso suntsitzaileak jasan dituzten.

Antisemitismoa ere bi ahoko ezpata dela adierazi duzu liburuan. Egon badago, baina aitzakia bihurtu da, Israelen aurkako kritikarik ez onartzeko eta nahi duten moduan jokatzeko.

Esan behar dugun lehenengo gauza da antisemitismoa existitzen dela, ezin dugu ukatu; hainbat garaitan juduak jazarri egin dituzte, batez ere European. Kurioski, Marokotik iritsitako judu batek erran zidan moduan, European jazarri dituzte juduak, baina Israelek herrialde arabiarrekin eten ditu harremanak. Kontuak kontu, antisemitismoa gaur egun Israelenganako kritikarekin nahasten da sarri eta Estatuaren garaipen handienetakoa da hori, antisemita izatea Israel kritikatzen duen oro. Horrek estigmatizatu egiten

du edozein disidentzia, edozein kritika, Estatuak nazioarteko legeria behin eta berriz hausten duen arren.

Are gehiago, Bigarren Mundu Gudako juduen sufrimendua esplotatzeaz eta instrumentalizatzeaz ere hitz egiten da liburuan, biktimismo hori aprobetxatzeaz.

Bai, eta interesgarria da nola Estatuak berak diskriminatu dituen Holokaustoko biktimak. 2006ko ikerketa baten arabera, biktima horien hirutik bat pobrezian bizi zen Israelen, manifestazioak ere egin dituzte iritsi ez zaizkien laguntzak eskatzeko, eta horrek guztiak talka egiten du Estatuak kanpoan saltzen duen irudiarekin, Holokaustoko biktimen harrera leku gisa. Liburuaren hitzaurrean Sergio Yahni aktibistak azaltzen du nola Israel Estatua sortu izana den Alemanian hasitako masakrearen jarraipena, Europa bat-batean aurkitu zelako kontzentrazio-esparruetako milaka pariarekin: zer egin beraiekin? Bada, Israelera bidali. Horregatik diot jatorrian gatazka ez dela erlijiosoa, koloniala baizik –600.000 indigena bota eta 500 herri baino gehiago suntsituz okupatu zuten lurraldea—. Saldu nahi digute israeldar-palestinar gatazkaren irudi bat egia ez dena, bi alderdi edo borrokalari daudela, eta ahazten dugu gatazkaren benetako jatorria zein den: Israel bezalako Estatu baztertzailer eta koloniala, Europako juduek erabaki zutelako juduentzat baino ez den Estatua eraikitzea, bertako herritarrek kanporatuz.

Segurtasunarekin obsesionatuta dagoen Israel bat erakutsi duzu, baita ere. Herritarrek sineksia dute edozein unetan suntsituak izan daitezkeela.

Duten ideologiaren ondorio da, nolabait. Israelgo armadak gerra guztiak irabazi ditu, baina hala ere arriskua etengabekoa dela uste dute. Egia da gatazka armatu baten erdian bizi direla, eta hain juxtu horrexek, atentatu suiziden garaia eta sortu du segurtasunarekin obsesionatuta dagoen gizartea, kontrol zorrotzarekin. Eta hori dena, gainera, esportatzen ari dira: bai barne-kontrola (kamerak eta), bai Gaza eta Zisjordaniaren okupazioaren ikasitakoa. Segurtasunaren industria puntako arloa da Israelen.

Liburuko esaldia da: “Ez gara armadadun Estatua. Estatudun armada gara”.

Lehenengo intsumisoetako batek esan zidan, eta egia da armadaren boterea izugarria dela Israelen, gizarte erabat militarizatua da, hain batean herritar guztiek hiru urte ematen dituztelako armadan, erreserbara pasatzen



Norabide bikoitza

“Azaleko argazkia Breaking The Silence soldadu ohien elkarteak 2004an egindako erakusketa batekoa da, Gaza eta Zisjordaniako okupazio militarren ondorioak Tel Aviven erakusteko egina. Argazkiak oso ondo irudikatzen du Israelen norabidea: militarizazioa eta mugimendu ultraortodoxoa elkarren ondoan eta gainera txantxetan, palestinarren sufrimenduari garrantzia kenduz bezala. Eta ez da fotomuntaketa! Ezkerreko tipoa existitzen da, abuztuan izan nintzen berarekin”.

dira ondoren, eta erakunde horren ikuspegia barneratzen dute. Analista ugari esan didate armadaren boterea ez dela hain handia, militarrek ez direlako gero politikan sartzen, baina konturatzen bazara, Israelgo lider asko militarrek izan dira aurretik, dominak jasotakoak gehienetan. Bermea dira boto-emaileentzat, “gutako bat zara” adierazten du.

Eta segurtasunarekiko obsesio horregatik ulertu behar dugu israeldar gehien-gehienek txalotzea Gazaren aurkako bonbardaketak?

Niri ere zaila egiten zait ulertzea. Israeldarrak pertsonak dira, haiekin hitz egin dezakezu... Azken finean, hamarkadetakoa propagandaren bidez, biktimismoa salduz... gaixo dagoen ideia sine-tsarazi diete. Michel Warschawski Estrasburgoko errabinoaren seme eta ezker muturreko juduak erran zidan: “Munstro bilakatu gara, ez dugu Gazan bizi den jendeaz hitz egiten, ez dira gure diskurtsoan sartzen”. Eta telebistak bonbardatzen zaituenean erranez etengabeko arriskuan zaudela, eskoletan erakusten dutenean Israelen egotea Jainkoaren nahia dela... buelta ematea zaila den iritzia publikoa sortzen da.

Gogorra da soldadu ezkertiarren jarrera irakurtzea: palestinarrei botatzen diete errua, nahi ez dituzten krimenak egitera behartu dituztelako israeldarrak.

Golda Meir-ek esan zuen hori, esaldi beldurgarria, inondik inora: “Gure seme-alabak hil izana barka diezaiekegu, baina ezin diegu barkatu beraienak hiltzera behartu izana”. Dena den, gehiegikeriak eta ankerkeriak salatu dituzten soldaduak gutxiengoa dira, eta gainera Israel barneko prozesua da: okupazioa mantentzearen ondorio moralez hitz egiten da, baina ez alternatibez edo bestelako konponbideez.

Zailtasunak izan dituzu, jendearekin hitz egiteko garaian?

Ez bereziki. Bere baitan itxita bizi den gizartea irudikatu dut, baina beraien planteamenduan uste osoa dute, beraiek direla mehatxatuak, eta hortaz ez dute inolako arazorik diskurtso hori azaltzeko. Batzuetan, eztabaidatzeak ere ez zuen merezi, Jainkoa tartean sartzen denean zaila baita arrazonamendu logikoetara iritsi ahal izatea.

Liburuan gehien planteatzen den konponbidea Estatu demokratiko eta laikoa da, bakarrena denentzat, eta eskubide berdinekin.

Ezker palestinarrak eta muturreko ezker israeldarrak defendatu duten aukera da hori, baina utopia iruditzen zait. Dena den, ni euskal kazetaria naiz, eta palestinarrak beraiek ikusi beharko dute gatazkaren soluzioa zein izanen den.

Baina israeldarrek ere badute zeresanik, eta zaila dirudi konponbidea, geroz eta eskuindarra goa den Estatuan...

Israel ez da suntsituko, ez du bere burua itsasora botako, eta absurdoa litzateke eraikita dauden herriak desegitea. Kontua ez da erabakitzea nik lur gehienak hartuko ditut eta zuri lau eremutxo emango dizkizut, baizik bidezkoena egitea, eta segregazioan dago arazoa —zer pasatzen da Israelen bizi diren milioi eta erdi palestinarrarekin? Zer, mundutik sakanbanatuta bizi diren zazpi milioi errefuxiatu palestinarrarekin?—. Bidezko konponbidea etorri beharko litzateke nazioarteko legeria betetzetik, baina orduan Israelek Estatu judu —eta soilik judu— izateari utzi beharko lioke. Nazioarteko legeria betez gero, errefuxiatuak etxera itzuliko lirateke, eta nagusitasun judua amaituko litzateke.

Israelek arma nuklearrak zituela esateagatik kartzelan urteak eman dituen Mordejai Vanunu-ri egindako elkarrizketa sartu duzu bukaeran, eta berak dio Israelek nahiago duela gerra mantendu, bakea lortu baino, gehiago komeni zaiolako.

Israelgo makinaria ekonomikoa kolonizazioan oinarritzen da. Hazkunde ekonomikoa horren baitan dago. Horrez gain, aipatu moduan hainbeste barne ezberdintasun dituen Estatu horren kohesioa mantentzeko —oso desberdina delako Errusiatik iritsi den judua, eta Marokotik joan dena, ez dute zerikusirik—, baliagarria da palestinarren aurkako borroka. Lotura ematen diena da. Aldiz, bake egoeran, israeldar askok herritik alde

"Herritar guztiek hiru urte ematen dituzte armadan, erreserbara pasatzen dira gero, eta erakunde horren ikuspegia barneratzen dute".



egingo lukete; Europatik iritsitako elitearen zati handi batek, dituen pribilegioak izateari utziko balio, herrialdea utziko luke.

"Propagandaren bidez biktimismoa, etengabeko arriskua, Jainkoaren nahia... saltzen dizutenean, buelta ematea zaila den iritzi publikoa sortzen da"


Irakurri dizut uste baino gehiagotan islatuta ikusi dezakegula gure burua irudikatzen duzun gizartean. Beldur-tu beharko ginateke?

Alde batetik, kausa palestinarrarekin edo nazioarteko beste hainbat kausekin sentsibilizatuta gaudenok islatuta ikusi dezakegu gure burua kolono ezkertiarren paradigmak, indigenak liberatu nahi dituen eta

horretarako bide egokia zein izan behar duen adierazten diena. Bestetik, objektiboki, zerikusi handiagoa dugu israeldarrek, palestinarrarekin baino. Musika bera entzuten dugu, zinema bera ikusi eta literatura bera irakurri, gizartearen zati handi bat kulturalki oso europarra delako. Sarri, beraiek ere konplizitate hori bilatzen dute, "antza daukagu-eta", erraten dizute... ■



"Egizu zerbait ezberdina, ZATOZ TXURIRA!!"



Anoeta pasealekua, 24 • Donostia
Tel.: 943 464 404 • www.eltxuri.com



argia 2011ko egutegia

Salgai
dagoeneko!



EGURREZKO
TAULA

50€

EGUTEGIA
OPARI

- Hausnarketa labor ospetsuak
- Jai egunak
- Egun seinalatuak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

EGUTEGIA

8,50€




BURNIZKO
EUSKARRIA

5€

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



TTAKUN (H)ERRENKA

Kanta txarrak eta beste

M

anuel Delgadok behin eta berriro esaten zigun klasean, bere ohiko grazia eta argitasunez, amodiozko

MARC CAMPÀ



Beñat Sarasola



Urkiza



Padrón

abesti txarrenetan daudela egia borobilenak. Eta bere erreperitorio propioa ateratzen zuen orduan. Ella Baila Sola, *Amores de barra*: “*Amores de barra y un lápiz de labios mal puesto en el baño, colirio en los ojos pegote de rimel la copa en la mano y vuelvo a tu lado. (...) Son las doce, hasta las cinco te utilizaré, no hace falta que mañana te vuelva a ver, sólo un coche necesito para volver, ciao cariño, esta noche lo he pasado bien*”. Taberna zuloetako ordu txikietako maitasun baldarrak. Nola ulertu baina? Galdetzen dut nik orain. Amodio gabeko sexu hotzaren kritika gisa? Maitasun eternalaren eta familiaren aldarrikapen gisa? Taldeari eginiko elkarrizketa zahar bat leitu eta, arraioa, tiroa beste alde batetik doala ulertu dut. Galdera: “*¿Y por qué cantáis tanto al desamor?*”. Erantzuna: “*Es otra forma de resolver, le hablamos a los chicos con ironía y cierto toque de optimismo. Un reproche de ésos de tú me dejas pero yo soy la fuerte. Ya es hora de que la mujer se muestre fuerte, no estamos toda la vida llorando*”. Mezudun abestia, beraz, edukia duena, konprometitua, kantagintza soziala.

Seguruenik, ordea, herri kulturak eta pop kulturak partekatzen duten kontua da beren letretan egia esatearena. Ez da Marta eta Mariliaren ondarea soilik. Jazzeko estandarrek hor ditugu aho beteko egiak nahi izanez gero: “*All that I want in all of this world is you*” (*All The Things You Are*), “*You are my favourite work of art*” (*My Funny Valentine*), “*You don't know what love is until you've loved a love you've had to lose*” (*You Don't Know What Love Is*), “*My heart should be well-schooled 'cause*

I've been fooled in the past, and still I fall in love too easily” (*I Fall In Love Too Easily*). Eta horrela jarrai nezake urteko ttakun (h)errenkak osatu arte. Eta ez litzateke betelana.

Eta pop abestietan ere beste horrenbeste, egiak zientoka, eta ez soilik kanta kaskarretan. “*She says she loves you and you know that can't be bad*” (*She Loves You*), “*Hemen gaude ta pozutuzen naiz ta ziur zure aita ere bai*” (*Lau Teilatu*), “*The book of love is long and boring (...) But I, I love it when you read to me*” (*The Book Of Love*). Azken hau, The Magnetic Fields taldearena, 69 Love Songs diskokoa, 69 amodio kante osatzen duten bildumakoa alegia. Baina, nire irudiko, pop musikan egia berdaderoenak bota zituenak Family talde donostiarra izan zen 90. harmakadan; bestela, ea nork aurkitzen duen honakoa baino egia borobilagorik: “*Porque tú eres la estrella de mi corazón surcando el cielo de nuestro amor. Me gusta mirar tu cara graciosa cuando bebes limón*” (*Dame estrellas o limones*).

Hauen guztien aldean, poeten egiak eskribauenak dira, Platonek aspaldi handian ohartarazi legez, gezurtxo ttikiak. Poetak luzamendutan ibiltzen dira (gara?), egiari beldurra izango baliote bezala. “*Quiero hacer contigo/ lo que la primavera hace con los cerezos*” (*Poema 14, Pablo Neruda*). Edo bestela, sinpleki, beren burua engainatzen, “*Andere begi urdin/Zu joanik ere berdin/Bai pozik naizela!*” (*Eder Bati, Jon Mirande*). Poetak edertasuna eta egiaren artean aukeratu behar badu, lehenengoaren alde egingo baitu itsumustuan. Horixe bera leporatu zion behin Koldo Izagirrek (poema batean): “*Ez haiz gauza gezurra bezain eder esateko egia*”.

Barkaidazu Jose Luis. ■

Poetak luzamendutan ibiltzen dira (gara?), egiari beldurra izango baliote bezala. (...) Poetak edertasuna eta egiaren artean aukeratu behar badu, lehenengoaren alde egingo baitu itsumustuan

Izabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Mila, mila esker!

Hamabost urte Urruña eta Goierriko ikastolen arteko harremana sortu zela, Urruñan ikastola berria eraikitzeko. Hamabost urte ekipa osoak lan eta lan aritzen direla, laguntza ederra ekartzen zaiola ikastolako ibilmoldeari, ekintzak antolatzen direla haurrekin.

Gehienetan Hazia elkarteak Herriko Etxearen aldetik trabak eta zailtasunak ezagutu ditu, kantaldiaren errezibitzeko. Urtero tira-birak gainditu behar izan dira euskal kultura eta ikastolak ez baitira ulertuak izan hautetsi mundu hertsia horretan. Haatik, ikastola handitzen doa, txikia gelditu da. Hautetsi nagusiek euskararen aldeko hitz handiak erabiltzen dituzte, erabat aldekoak direla! Alta, errealitatea bestelakoa da. Paskal Indo bera, Parisko arduradunekin bildu ondoren itzuli zaigu berriarekin, irakasle postuak kentzeko bidean daudela Hezkunde Nazionaletik. Horrek beharretan utziko gaitu, ikastolen eraikitzeko, irakasleen ordaintzeko, haurrentzako ekintza dinamikaren bultzatzeko, euskararen indartzeko ikastolan.

Horretan gaude, ikastolen laguntzeko lana ez da gelditzen. Hor dago, hain era naturalean askotan anitzek ez dutela ikusten ere! Laguntza gehiago eskertuko litzatekeela ere beharrak ez baitira txikitu, botere publikoek ez baikituzte laguntzen euskararen egoeraren heinaren araberrako neurriekin. Bai, ikastolek



GAIZKA IROZ



Erakutsi behar diegu
bide ona dela, gustura
eramaten dugula
euskaldunak izaten
jarraitu nahi dugulako,
euskararen mundua
gurea delako eta
maite dugulako



laguntza behar dute gure haurren geroa euskalduna izan dadin, gure haurrek beren geroa euskaraz izanen dela erabaki dezaten. Erakutsi behar diegu bide ona dela, gustura eramaten dugula euskaldunak izaten jarraitu nahi dugulako, euskararen mundua gurea delako eta maite dugulako.

Hazia elkarteak Goierriko ikastolarekin antolatutako kantaldia paregabea izan da, hor ikusi baititugu euskararekiko konpromisoa aspalditik hartu dutenak eta bihotzez daramatenak. Benito ikusi dugu, Benito urte luzeetan egoera latzak ere jasangarriagoak izaten lagundu diguna, hor ere emozioak azalarazi dizkigu; harekin bere musikari guztiek! Urruñako publikoa irabazi du eta herritarrak ikastolarengana hurbildu. Beñat, gure “artista” kantaldi honen bultzatzaile nekaezina, beste askoren ondoan. Denak tokikoak, itzalean ari direnak, ikastolaren alde, geroa hortik iraganen baita.

Bukatzeke Pirritx, Porrotx eta Mari-motots, urte guztian bizitza alaitzen digutenak eta urtarilaren 2an bi emanaldi eskainiko dituztenak gure ikastolen alde.

Euskararen munduak asko ematen digu eta horrela jarraituko du, hau baita bidea, elkarlana eta gehienetan musu-truk edo ia. Hau da bidea, loturak sortzen dituen, kentzen ahal ez digutena, gure haurrei poza, plazerra ematen diena. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Aldean egokitu zait bertako hauteskunde bezperatan ibiltzea. Alderdietako lehia izango genuela inguratuko gintuen ia gai bakarra pentsatzen nuen. Oker nenbilen, aspaldiko bozketarik txatxuenaren aurrean geundelakoan itzuli ginen. Ibili garen entresetako jendearen artean ez genuen inongo aipamenik entzuten, eta gure jakin-nahiaren galderei, ezaxolazko keinuz erantzuten zieten gehienetan. Asper-asper eginda sumatu ditugu bisitatutako bazterrak, jokoan legokeenaren emaitza, edozein izanda ere, deus on berririk ekartzeko kapaz ez balitz bezala. Eta zerbait esateko gauza

Katalunia

ziren ale suetoek, CIUren garaipen ziu-rak ez zituen batere berotzen, deus aldatzeko gauza ez bailiran. Sekulako abstentzioa gertatuko zela zirudien, gu behintzat aski garbiki itzuli ginen hori ondorioztatuta. Baina hara non, emaitzek besterik erakutsi digute eta parte-hartzeak gora egin du. Hangoa ikusirik, PSEk guztiak eta bi egingo ditu hemen ahal dela bereari eusteko, eta hori gertatu dadin, ezker abertzale osoaren parte-hartzea eragotzi behar du kosta ahala kosta. Badaki, jakin, eltzate hori ezingo duela egosi bere nahierara ezker abertzalea barruan bada, eta konjeladorean atxikitzea izango du bere estrategiaren oinarri ia bakarra. ■

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Leire Olaberria, urrezko txirrindularia

Ikaztegieta herri txikia eta apala da, baina badugu pozik eta harro ego- teko motiborik: Leire Olaberria txirrindularia, gure herriaren izena Txinan, Polonian eta beste hainbat tokitan ezagun egin duen neska. Garai batean, atletismoan marka bikainak egin bazituen ere, atletismoa utzi egin behar izan zuen eta pistako txirrindularitzari lotu zitzaion 26 bat urterekin. Eta ordutik hona bere marka guztiak hobetu besterik ez du egin. Irabazita- ko guztiak aipatzea zaila da, baina azken bi urte hauetan poz handiak eman dizkio Euskal Herriko txirrindularitzari: Beijing-go Joko Olinpiko- etan brontzezko domina lortu zuen puntuazio proban, Espainiako erlo- jupeko proba absolutuan txapeldun 2010ean, aurtengo udan, Mallorkan egindako pistako txapelketetan, 5 urrezko domina eta 2 zilarrezko lortu zituen, eta azkenik, duela hilabete inguru, Polonian jokaturako Europa- ko txapelketetan, urrezko domina lortu zuen, Omnium izeneko lehia- ketan (sei proba desberdinez osatua: scratch, 500 m abiaduran irtenda, jazarpena, puntuazioa...)

“*Citius, altius, fortius*” latinezko esamolde bat da eta “azkarrago, altuago, indartsuago” esan nahi du. Hauxe da Joko Olinpikoetako



DANI BLANCO

lema edo goiburua, Aro Modernoko Joko Olinpikoetan, Atenasen 1896an, Pierre de Coubertin baroiak esan zuena. Leirek badi- rudi gogoan hartu duela esamolde hori eta bere buruari ezarri dion apustua horixe dela: beti hobetzen joateko ahaleginak egi- tea. Eta lortu dituen garaipenak hori baieztatzen datoz.

Gizonezkoetan aipatu, goraipatu eta ahoz aho zabaltzen dira honela- ko balentriak, baina emakume batek lortzen dituen askoz indar mediatiko eskasagoa izaten dute eta ez dute hainbesteko aipamenik merezi izaten. Hobeto esanda, merezi bai, baina ez zaie hainbeste- ko meriturik aitortzen. Baina Leire Olaberriak egin dituenak ez dira ahuntzaren gaurdiko eztula eta nik ahots ozenez goraipatu nahi ditut gure herritarraren garaipen horiek. Ikaztegieta bezalako herri txiki batentzat ohore handia da horrelako kirolari bikain bat edukitzea, mun- duko onenekin lehiatu eta irabazte- ko ere kapaz dena.

Osasuna eta zortea izan dezazula, Leire, goi-mailako txirrindulari horien artean lehiatzeko eta garaipen gehia- go lortzeko. Ea Olentzerok zorte hori eta garaipen batzuk ekartzen dizkizun opari.

Aupa, Leire! ■

Gizonezkoetan aipatu, goraipatu eta ahoz aho zabaltzen dira honelako balentriak, baina emakume batek lortzen dituen askoz indar mediatiko eskasagoa izaten dute eta ez dute hainbesteko aipamenik merezi izaten

TXANDAN

Andoni Mujika



Ezin zaio ukatu betiko ezker abertzaleari, behin eta berri- ro, motibazio abertzaleak berbizteko eta, neurri batean, biltzeko daukan gaitasuna. Erreformulaziorako talentua du. Gai dira herri honetan historikoki dago- en gogo-nazionalarekin konektatzeko. Mezu garbia darabilte aldarri nagusian: *independentzian*. Hainbes- teri, tartean beren lehengusu txikiari ere, hitzez hitz ahoskatzea kostatzen zaion terminoa aireratzen dute ozen. Hitz hori erabiltzeko ez daude kiointura ezberdinen menpe. Komeni den, komeni ez den, korapilo taktikoen gainetik salto egiten dute harro.

Aurrera

Gustatzen zait hori. Nortasun adieraz- pentzat jasotzen dut nire baitan. Fase berrian sartu da mugimendu abertzalea. Bi kontzeptu ditu oinarritzat: independentzia eta sozialismoa. Lehenaz hitz egin dut gorago. Bigarre- na garatzeko eta garai honetara ekartzeko aukera ederra dauka orain. Hau da, sozialismoa, herrigintza eta gizartegintzarekin lotzea. Ezker izaerari adiera ezberdina eta konplexurik gabekoa eskaini diezaioke ausart eta sortzaile baldin badabil. Merezi du komentzionala ez izatea honetan eta gizartearen ekarpena eta gogoeta jasotzeko mekanismoak asma- tzea. Ilusioa ber bi. ■

ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Ausiabartzako Telebista

Uholdeek konbultsionaturik eta izularrituriko herri ilaun hartan, telebista ere bazuten; eta ez kate bakarra, hiru baizik. Laugarren katearen zain bizi ziren bertako asko; halere, Krisi Sakonegi andereak hamar mila atal eta puskatan hausten zien horiei ametsa, behin eta berriz esanez: “Aurten ez, baizik hurrengo urtean obratuko dugu, agian”.

Gaztea izan arren, zaharren manierak hartuak zituen telebista herbal hark. Diren eta gaiztoenak praktikatzan zituen: zentsura eta zigorra. Hogeita hamar urterekin, ehun eta laurogeita hamar urteko ganbelu zaharraren aitzakia denak zituen Ausiabartzako telebistak.

Herren eta eskumotz ziren albistegiak. Erkinak. Baina, Eros Gezurtegi bertako zuzendariak esaten zuenez, aje eta eritasun guztiak kanpotik zetozen: “Zereko zerak du errua, eta ez guk”.

NEKE ASTUNA. Telebistaren heriotza beltzaren espektro lazgarria hasi zen ikusten herria. Eta purrusta altxatu zuen. Ozena. Bertako erregeari galdetu zion ea ez ote zitzaion posible telebista hura ganoraren arrastora sartzea. Eta erantzuna izan zen bertako jauntxoen arteko hitzarmen bat, zeinaren bidez populua derrigortzen baitzen egurrezko betaurreko beltzak jartzera, telebista ikusteko.

Idatzi zuten poetek, kantatu zuten koplagileek, esan kontalariak: “Horrela ez goaz inora”. Eta erantzuna izan zen albistegietan ahotza kentzea oposizio politikoari. Kexua azaldu zuten bertako langileek, esanez ezen horrela ezin zutela egin beren lana gutxieneko kuxidadearekin. Eta erantzuna izan zen erredakziotik kentzea idazmakina.



INIGO AZKONA

Dena bihurtu zen aitzakia telebista hartan: beroa ez bazen, hotza. Azkenean, albistegien izena ere aldatu zuten. Eta horrela, *Gezur On* izenarekin bataiatu zuten *Egun On* izan zena.

OLENTZERORI GUTUNA. Ezin eramanak hartu zuen Ausiabartzako telebista, denon diruarekin ordaindu bai; baina ezin inork ikusia gertatzen zen. Erregeak ez zuen egoera aldatu gura. Parlamentuak ez zeukan indarririk Gezurtegiak maisua botatzeko. Unibertsitateak ez zekien nola aholkatu gizartea.

Eskolako umeek hartu zuten erabakirik eta zentzuzkoena: Gabonak hurbiltzen ari zirela eta, Olentzerori idatzi zioten gutun bat. Politikariek, kultur-eragileek, pentsalariak, sindikatuak buruek eta apaizek ezin zutena, ea ikazkinak ahal zuten.

Santomasetara aurreratu zen Olentzeroren erantzuna. Postal bat erori zitzaion eskuetara, zerriaren zozketaren emaitzak oholztatik esaten ari zenari. Mikrofonoa ongi jarri eta, belaunak dardaraz, gutuna irakurtzeari ekin zion.


“Ume maiteok –zioen ikazkinak postalean–, ezinezkorik ezin dut nik. Urlia, Sandia eta Berendia elkartu gara pagadian, eta ez dugu nahikoa indarririk bildu, nahi duzuen lortzeko”.

Ikazkinak zioenez, Gabonetako lanak amaitutakoan, Pertsia urruneko Hiru Errege Magoak, Mazedoniako bazter menditsuetako Hermes, eta Patagoniako meategi sakonetako gnomoak deituko zituen udaberriko sinodora. Ea horrela zerbaitegin zitekeen desmasia eta ondiko hura zuzentzeko.

Pentsatu zuen bere kantuan esataria: “Unbeko Ama Birjinarekin ere hitz egin beharko genuke...”.

Euri-jasa hasi, eta plaza hustu zen. Ihesi, ospa egin zuen zerriak erauntsian. Gezurrak

segitu zuen telebistan, zazpi bider hirurogeita hamar aldiz. ■



irudia:

Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Durangoko uztari jarriak

INIGO AZKONA



I

Durangoko azoka,
abendu denen boom,
salgai mila liburu,
disco eta album!
Erosleen hizketa
hauek denak entzun,
ea zenbat titulu
aurkitzen dituzun.

II

Hiru seme-alaba,
aita eta ama,
saritzekoa ei da
gizonak esana:
“Stand orotan hartuz
alekada bana
hartu beharko dugu
autokarabana.”

III

Arratsaldeko lauak
azoka beterik
mutil bat ikusi dut
desesperaturik:
“Jendartean etzagok
bulkada faltarik
eta neskak ezti nahi
Bulkada besterik!”.

IV

- *Txatartegiko ipuinak*
erosiko aital?
- Mekanikua da ta
gehio eztitu nahi...
- *Gizaki bakartiak*...
- Ez, gaur ez behintzat, ai!
- Ta *Itsasoa gara?*
- *Haragizkoa*, bai.

V

Ikastaro bateko
hausnarren almazen,
liburu batek dio
“*Hau koaderno bat zen*”.
- Bazan garaia hasteko
apunteak saltzen!
Mario Conde hala
hasi zan, hain zuzen.

VI

A ze buila Irrien
Lagunen Klubetik!
- Ama, *Pupu ta Lore*
ikus’ittut hortik!
- Etzaitea urrundu
amatxon *errotik*;
han buka bitartean
bel nazazu eskutik.

VII

Zapatua pasata
postutxoan bueltan
gazte batek esan du
begiak libretan:
“Hemen pasau dodazan
zazpi orduetan,
diruak emot’eban
bitsa eskuetan!”.

VIII

- *Hiru maria* nahi dot,
berau dot begiko!
- Ba *Poto* nobela da
neure faborito!
- Horregatikan teman
ezkatxik hasiko:
hiru maria poto
erosi ta kito.

IX

- Azoka amaitu da,
zein edarto, *château*!
Irakurzale danak
asetuta bapo,
dana txukundu daigun
hurrengo urterako,
frogarik itxi barik
autopsiarako.

DOINUA: “Lili Marleen”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Arte eszenikoak

Emakumeak oholtzan, gizonak erabaki-guneetan

Katalunian egindako lan bat abiapuntu hartuta, orain dela lau urte EAEko arte eszenikoak generoaren ikuspuntutik aztertu zituzten Aintza Uriartek eta Arantxa Iurrek, Getxoko Simulacro Teatro konpainiaren ugazabetako bik. Ikusi zutenez, zenbat eta erabakitze ahalmen handiagoa, orduan eta emakume gutxiago. Harrezkerotik beste neurketa batzuk egin dituzte ildo beretik. Eta denak berdintsu jarraitzen du.

UNAI BREA



WWW.KULTURKLIK.EUSKADI.NET

SIMULACRO TEATRO konpainiaren eta, aldi berean, Getxoko Antzerki Eskolaren jabeak dira Carlos Baiges, Arantxa Iurre eta Aintza Uriarte. Goiko argazkian zutunik ageri den laukotean, ezkerreko muturrekoa da Iurre, eta eskumakoa Uriarte. Orain bost-edo urte, Projecte Vaca elkarte katalanak egindako lan baten berri izan zuten: “Max sarien liburuxka eskuetan hartu eta emakumeak zenbatzen

hasi ziren; ohartu egin ziren emakume antzezle gehiago zegoela, baina ardura handiagoko lanpostuetan (zuzendari, egile, eszenografo...) gizonezkoek zihardutela gehienbat. Nabarmen gainera, 80-20 inguruko portzentajeetan”.

Euren inguruan antzeko azterketa egitea deliberaturik, Iurre eta Uriarte ohartu ziren EAEan –horixe hartu zuten lan eremu– gau-

zak oso antzekoak zirela. *Parekotasuna/Desberdintasuna Euskadiko Arte Eszenikoan botere eta erabaki guneetan. Laburpena eta ondorioak* txostena kaleratu zuten 2006ko udaberrian. Idazlan laburra zen, portzentaje birekin laburbildu zitekeena: 70-30. Esan gabe doa zein generori dagokion zein.

Egindako neurketaren emaitzak ustekabeen harrapatu zituen egileak: “Ez geunden gaiak kezkatuta, ez geneukan arazoaren pertzepziorik. Ustez berdintasun handiagoa dagoen giroan ibiltzen gara, baina ez da egia. Gizartearen beste eremuetan gertatzen den gauza bera gertatzen da gurean ere”.

Gizonen ikuskera gailentzen da oholtzan

Ordudanik, Uriartek eta Iurrek, batez ere bigarrenak, gaia aztertzen eta ahal den heinean, jendarteratzen jarraitu dute, ez beti nahi bezain arrakastatsu. 2007an EAEko antzerki jaialdien gainean ipini zuten lupa, eta emaitzak beheko koadroan daukazue.

2007ko azterketa hartan, ondorioei dagokien atalean, hau irakur daiteke: “Zuzendari kopurua zenbatu dugu emakumeok hortxe dauzkagulako agertzeko arazorik handienak, botere-guneetan. Eta egile kopurua kontuan hartu dugu testuen bitartez mundu ikuskera transmititzen delako”. Arantxa Iurreren esanetan, ikusleengan emakumeak dira gehien-go, baina, estatistikek erakusten dutenez, gizonetzko baten begiradaren arabera egindako obrak ikusten dituzte gehienbat.

Diskurtsoak, estetika... maskulinoak dira batez ere, diosku Iurrek. “Ez dakit zehazki esplikatzin zer den maskulinoa eta zer feme-

ninoa, gainera egile bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina badago nabaritu daitekeen zerbait. Dramaturgia gehiena maskulinoa da. Nik ikusi ditut emakumezko estereotipoak gizon batek idatzitako antzezlan batean, eta ez dut neure burua hor islatuta ikusi”. Gai honetan gehiago sakondu gura dute, eta berriki Bizkaiko Foru Aldundiaren beka eskuratu dute antzezlanen edukiak generoaren ikuspuntutik aztertu ahal izateko.

Programatzaileak du azken hitza... eta gizona izan ohi da

Lehenbiziko azterketa egin zutenean, 2006an, sortzaile kopuruen portzentaje-banaketa zorioneko 70-30 hori zen. Ordurako, hala ere, konturatzen hasiak ziren gero eta emakume gehiago zebiltzala zuzendaritzan eta dramaturgian, eta joera bere horretan mantendu da. Baina hori ez da behar bezala islatzen antzokien programazioan.

Programatzaileen proportzioa ere 70-30 zela behatu zuten Iurrek eta Uriartek 2006an egindako lehenbiziko lan hartan. Ez zituzten guztiz zifra txartzat jo, kopuruak ez zeuden benetako parekotasunetik hain urrun haien ustez, baina... Gauzak arretaz aztertuta hasten dira diferentziak agertzen. “Sareak, antzoki-sare publikoak, hiru maila bereizten ditu, emanaldi kopuruaren eta aurrekontuaren arabera. Bada, zenbat eta aurrekontu handiagoa, alegia, zenbat eta erabaki-ahalmen handiagoa, emakumezko gutxiago dago”.

Azken batean, programatzaileetan gehien-go dira gizonak, eta gizonek sortu eta zuzendutako lanak programatzen dira gehien.

Jaialdien programazioan gizonak dira bost sortzailetik lau

2007an, Arantxa Iurrek eta Aintza Uriartek EAEko antzerki jaialdiak aztertu zituzten. Ondorioa honakoa izan zen: sortzaileen %81, zuzendariak nahiz egileak kontuan harturik, gizonetzkoak ziren. Zazpi jaialdi behatu zituzten, EAEko garrantzitsuenak lurre eta Uriarteren esanetan, eta orotara 235 sortzailearen lanak aurkeztu ziren horietan. Hona hemen azterketaren emaitza jaialdiz jaialdi (emandako portzentajea gizonetzko sortzaileei dagokie beti ere):

- Getxoko Antzerki Jardunaldiak: %83
- Donostiako Antzerki Feria: %65
- Santurtziko Nazioarteko Antzerki Jaialdia: %71
- B.A.D (Bilbo Antzerki Dantza): %62
- Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdia: %95
- Leioako Umore Azoka: %73
- Araiako Umore Jaialdia: %70 (zuzendariak baino ez; ez zuten eskuratu egileei buruzko daturik).



INIGO AZKONA

Leioako Umore Azoka, 2008an.



“Jakina, oraindik gehiago dira gizonezkoek sortutako antzezlanak, baina andrazkoen sortuntzaren gorakada ez da behar bezala erakusten ari”, dio Iurrek. Azkenean emakumezkoen lan gehiago programatzea beste irtenbiderik ez dutela izango pentsatzen du Getxokoak, baina ez da erraza izango: “Antzerki mundu honetan harremanak aspalditik finkatuta daude, batzuk orain dela urte asko dira lagunak, eta ez da erraza hor sartzea. Emakume batzuek lortu dute ospea, errespetatuak dira eta zirkuituetan daude, baina gutxi dira oraindik”.

Iurrek ez du uste, haatik, gizonezko programatzaileek batez ere gizonezko sortzaileen lanak aukeratzen dituztela nolabaiteko “genero-elkartasun” batek bultzatuta. Inertzia kontua izan liteke, akaso. Edozelan, okerrera da programatzaileak ez dutela onartzen arazo bat dagoenik, ezta Iurrek eta Uriartek kopuruak begien bistan jarri dizkietenean ere. Izan ere, Iurre kexu da etxean bertan jaso duela harrerarik txarra beren azterketak.

Mugagabe zirkuitua, mugak nonahi

Erakunde publikoengana jo zuten, eta ez zuten erantzun txarrik jaso. “Asko lagundu digute”, dio Arantxa Iurrek, “batez ere politi-

Eskumako argazkian Aintza Uriarte ageri da Mugagabe zirkuituko obran. Espainiako Estatuko lehen zirkuitu paritarioa da Mugagabe, baina programatzaileek ipinitako oztopoak direla-eta zailtasunak ditu aurrera egiteko, Arantxa Iurrek salatzen duenez.

koki zuzena delako, boladan dago berdintasun politikak bultzatzea”. Politikarien interesen zintzotasuna gorabehera, Iurrek eta Uriartek Mugagabe zirkuitua antolatzeke diru-laguntza lortu zuten: “Zirkuitu paritarioa da, Espainiako Estatu osoko bakarra”. Lau edizio egin dira, baina programatzaileek geldiarazi edo, behintzat, moteldu egin dute, Iurrek salatzen duenez: “Orain Estatuak berak eman digu aurrera jarraitzeko finantzazioa, eta ezin dugu aurrera jarraitu programatzaileek ez dutelako nahi Mugagabe euren antzokietan sartzea”.

Programatzaileek ez dute nahi hemen ezer ezbaian jartzerik, Iurreren esanetan. “Parekotasuna dago, esaten digute. Orduan, zergatik ez dute horretaz hitz egin nahi, zergatik jartzen dira urduri gaia mahai gainean ipintzen diegunean?”. 2006an bertan, estreinako txostena egin eta gero, sektoreko biltzar handi bat antolatu zuten parekotasunaz hitz egiteko, eta erantzuna oso oldarkorra izan zela gogoan du Iurrek. Baita emakume askoren aldetik ere. “Emakume sortzaile askok ez dute genero kontzientziarik eduki nahi. ‘Ni sortzailea naiz eta ez dut etengabe gogoratu behar emakumea naizela’. Abiapuntu horrekin, zaila da ikustea hemen aukerak ez direla berdina banatzen generoaren arabera”. ■

lagunekin euskaraz

interneten ere bail

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunak artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Liburuak

KRITIKA

Bulkada.
Jon Benito.
Susa. 111 orrialde. 14,25 euro.

Helduen literatura

Igor Estankona



Ezagutzen ez duguna, galdu duguna

JON BENITO liburu sano borobil eta trinkoarekin estreinatu zen orain dela hamar urte (*Aingurak erreketan*, Susa, 2001). *Bulkada* narratibo hau ere elegantzia berberarekin idatzia dago. Obsesioak jotako pintoreak bezala margotzen dizkigu, zehatz, gure belaunaldiaren amodioak. Eutsi egiten die Jon Benitok malkoei eta estridentziari. Hitz egiten digu, baina ez dizkizu hitzak aurpegira botatzen.

Hain maite duen Baskoniaren partidu perfektu bati so imajinatu dut zarauztarra, jokaldi on batek sortzen duen plazera sortzen baitu bere arbelak: kalkulatu dago poemen erritmoa, istorioen pisua. Ehun eta hamaika orrialdeko kontakizun honetan, “nor naiz ni?” galdetzen dio bere buruari. Hasieran markoa erakusten digu: familia, sorlekua, herria eta kultura diseziona-tzen ditu, kontuak garbitzeko, kronista batek baino sakonago, eta poeta batek baino hobeki. Bizipenak azaltzeko ahalegin hori ez da metafisikoa, baizik eta zatikien bidezkoa, detaile sutsuekin egina: “Udaberriaren azkeneko izkina hautsia./ Hondarribiko aireportua./ Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren/ senideen kontra oldartu zen Ertzaintza”.


Edertasun handiz, gogorraren ederrez, Benito barneratu egiten da, apurka, ulertzen ez denaren uretan, ulertzen ez diotenaren azalpenetan, betiko aldatu diren gauzetan: familiari eta sorlekuari kantatu ondoren –apur bat prebisibleak eta bigunak poemetako batzuk–, maitasunaren bi alderdiak esploratzen ditu samur eta hunkibera, eta *Barrurantzko bidaia* hasten du, hirugarren pertsonaren babesean: “Utzi zuen etxea, utzi zuen dena,/ ikusteko munduan bere baitan zena”. Bidaia hori modu klasikoa bukatzen da, Kavafisek *Hiria* (1910) poemara ekarri zuen sentsazio zahar horrekin: “Leku berririk ez duzu edirenen, ez duzu edirenen beste itsasorik./ Hiriak jarraituko dizu. Kale berberetatik zara/ ibiliko. Eta auzune berberetan zara zahartuko;/ eta etxe berberetan urdindu”. Bidaia itzultzen da Jon Benito gero, lur hartzen du emeki, eta *Koordenada berriak* azken zatiari ekiten dio.

Liburuko poema laburrenak ez doaz beharbada jokoa eta artifizioa baino harago, baina arnas luzeko poemak gogoangarriak begitandu zaizkit. Jon Benitoren etorkizunak lehenaldi sakonetatik datoz, eta hausnarketa barrukoena luze eta suabe eskaintzen dizkigu. Purgatorio gozoa da *Bulkada*, hondamendi isila, esaten dena idatzita dagoena baino askoz gehiago den liburua. ■

Oñatiko herri antzerkia, bi obratan

Oñatiko Olaitturri Kultur elkarteak edizio dotorean eman ditu argitara Iñazio Irizarrek eta Jerardo Elortzak idatzitako antzezlan bi *Olaitturriren herri antzerkia* liburuan. Euskara batuan leitu ahalko ditugu testuok liburuko eskumako orrialdeetan eta ezkerrekoetan aldiz Oñatiko euskarari. Biak ala biak benetan jazotako gertakarietan daude oinarrituta.

Lehenengoa, *Oñatiko hitzarmena* izenekoa, 1542. urtean kokatu dute, gebaratar kondeek herrian agintzen zuten garaian. Bigarrena berriz, *Lizargarateko Txamao* izenekoa, 1760an gertatzen da eta Oñatiko uni-bertsitateak herrian ekartzen zituen onurak eta kalteak dira tramaren erdigungunea. ■



Olaitturriren...
I. Irizar / J. Elortza.
Olaitturri K.E.
243 orrialde.
14 euro.

Txotxongiloak altxorra direla erakusteko

Enkarni Genua donostiarrak idatzi zuen iaz *Altzor bat esku artean: txotxongiloak*. Antzerkian ibilbide luzea egindakoa da Genua 1960ko hamarkadatik eta 1971. urtean, Manolo Gómezekin batera, Txotxongillo taldea sortu zuen; baita 1982an Titirijai nazioarteko jaialdia ere. Liburu honen zergatia txotxongiloei plaza eskaintzea da: egileak liburuan azaltzen duenez, asko dira pedagogiaz, sormenaz eta antzerkiaz egindako liburuak, baina ez hainbeste horiek denak txotxongiloen munduarekin uztartzen dituztenak. Eta Genuaren ustez pena da hori, txotxongiloak esku artean dauzkagun altxorak direlako eta gehiago erabiltzera animatu nahi duelako jendea. ■

Altzor bat esku artean.
Enkarni Genua.
Erein-Topic.
149 orrialde.
23 euro.



Diskoak

IKER BARANDIARAN



Egunsenti bat lez.

Nabil.

Autoekoizpena.

Iraupena: 41'05".

8 euro.

Dabilenaren alderdi sentikorrena

NABIL taldearen bultzatzaile nagusia Unai Egia ipurterre lekeitiarra da: aurtent Nabilen bigarren diskoaz gain, Mitosia taldearen lan bikoitza ere egin du, eta orain gutxi utzi dio Txapelpunk taldean jotzeari; ibilbide luzea dauka. Nabilen bigarren diskoa askoz landuagoa da, eta Egiaren alderdi sentibera azaleratzen du oraingoan ere. Hala, iraganean iltzatuta daukan metalaren oinarria eta gaur egun barruak eskatzen dion pop-rocka parera jartzen saiatzen

da disko honetan. Tarteka, aztarna heavyak dituen metal melodikoa egiten du; eta beste batzuetan Ken Zazpiren tamainako melodia eta intentsitatea duten piezak. Baina badira mota askotako ñabardurak ere. Euskaraz egin du kanta guztietan eta sentimenduekin, naturarekin eta sentsazioekin lotutako pieza biluziak dira ia guztiak.

www.myspace.com/nabilspace

Unai Egia - Nabil

«Nabil sortzean lau zatitan banatzea erabaki nuen: Ura, Lurra, Airea eta Sua»

Erromantiko hutsa zara, ezta? Alderdi hori erakusten duzu Nabilekin. Mitosia taldeak konpentsatzen du hori?

Nabilekin biluzik sentitzen naiz, barrukoa kanporatzen dut abestietan. Mitosiaren hitzak garrantzagoak eta dibertigarriagoak dira. Nabilen familia, haurtzaroko oroitzapenak, maitasuna... lantzen ditut; eta Mitosian heriotza, gai sozialak, filmetan oinarritutakoak...

"Zerua", "izarrak", "izpiak", "txinparta", "olatuak", "solstizioa", "hondartza", "ura", "sua", "kea", "haizea", "hotza", "euria", "txingorra"... Naturak leku garrantzitsua dauka zure bizitzan? Inspirazio garrantzitsua da?

Bai. Nabil sortzean lau zatitan banatzea erabaki nuen: Ura, Lurra, Airea eta Sua. *Bere begiei* itsasertzean egindako gogoeta zen eta *Egunsenti bat lez* basoan oinarritutako diskoa.

Lan honek jauzi kualitatiboa dakar. Ideiak askoz landuago zenituzten?

Beti esan ohi da hori, baina lan hau



helduagoa, borobilagoa, zuzenagoa eta indartsuagoa da. Bestela, elementuak berberak dira: ahots melodikoak, gitarra rockeroak, akustikak... Eta Xanperekin grabatzeak ere zerikusi handia du emaitzean.

Aurtent Nabilen disko hau eta Mitosiaren disko bikoitza kale-ratu dituzu. *Egunsenti bat lez*, sasoitsu zaude?

Egia esan, urte intentsoa izan da. Gainera, Txapelpunk taldean ibili naiz orain dela pare bat hilabetera arte.

Zure pop nahiak eta metal oinarriak bat egiten dute Nabilekin. Zein da garaile?

Abesti oso desberdinak daude lan honetan: metal ukituak, pop-rocka, bakarlari itxurakoak, instrumental bat... Ez da inor garaile atera, abesti guztiek dute garrantzi bera.

"Goiza arratsaldearen zain, hau gauaren zain eta urteak joan ziren". Zuk, argi eta garbi, ez duzu denbora galdu nahi, ezta?

Beti nago konposatzen. Beharrian hori daukat etengabe. Beti nago melodiak asmatzen ensaiatzen eta zuzenean jotzea ere maite dut. ■

Ezpalak

JON TORNER

Chillida Leku abenduaren 31n itxiko dutela iragarri dute

EDUARDO CHILLIDA eskultorearen familiak Chillida Leku museoa abenduaren 31n ixtea erabaki du. Laguntza publiko eta pribatu nahikoa ez lortzeaz gain, bisitari kopurua ere dezente murriztu da azken bi urteetan. Luis Chillidak adierazi duenez, langileen erregulazio espedientea tramitatzen hasi dira jada. 2000. urtean ireki zuten museoa, eta hamar urte hauetan 800.000 bisitari baino gehiago izan ditu. Aldian behin erakusketak prestatuko dituztela eta ondarea zaintzeko lanak egiten jarraituko dutela azpimarratu du Luis Chillidak. Hala ere, erakunde publikoekin negoziatzen ari direla jakinarazi du, azken orduko konponbidea topatze aldera.



DONOSTIA.ORG

Zeintzuk dira euskal blogosferako 2010eko ekarpenik onenak?

AZKEN hiru urteetako ildoari jarraituz, euskal blogosferako 2010eko ekarpenik onenak aukeratzeko kontsulta abian da jada Teknopata.net blogean. Egitasmoak bi fase ditu: 2010eko abenduaren 19ra arte izango da zabalik proposamenak jasotzeko epea eta horretarako orria editatu behar du erabiltzaileak. Ondoren, 2011ko urtarrilaren 9ra arte zabalduko da bozkatzeko epea. (<http://onenak.teknopata.net>)

Kulturaren Kontseiluko 32 kideak hautatu ditu Jaurlaritzak

KULTURAREN Euskal Kontseiluko 32 kideak hautatu ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Tartean daude, besteak beste, Lucia Lakarra dantzaria, Miguel Zugaza Prado museoko zuzendaria, Karmele Jaio eta Luisa Etxenike idazleak, Alex de la Iglesia zinemagilea eta Patxi Salaberri euskaltzaina. Euren aurreneko egitekoa, Kulturaren Aldeko Herritartasun Kontratua lantzea izango da. Kontseiluko kide guztien zerrenda: <http://bit.ly/f7C4ow>

Telmo Esnalek irabazi du Lekeitioko 33. Euskal Zinema eta Bideo Bilerako sari nagusia, *Amona Putz!* filmarekin. Sormen saileko lehen saria ere film horrek jaso du. Argumentuzko lanen artean Maialen Sarasua-ren *Hemen nago* lana nabarmendu dute; dokumentalaren atalean, aldiz, lehen saria hutsik geratu da, eta Carlos Iglesiasen *Slack Line: grabitatearen erronka* lanak jaso du bigarren saria. Bestalde, Bilboko Zinebi jaialdiko sari nagusia *ex aequo* irabazi dute Jurgis Krasonsen *Norit Krupi* eta Banu Aksekiren *Thermes* filmek.

Guregipuzkoa.net

webgunean euren argazki funtsak jarri dituzte eskuragarri Hondarribia, Zestoa eta Zaldibiko udalek, iaz Kutxak eta Aranzadik egin zuten moduan. Hondarribiko 4.978 irudi digitalizatu, Zestoako 1.205 eta Zaldibiko 1.705 igo dituzte.



GUREGIPUZKOA.NET

Riff Truckers talde gernikarrak eraman du Bilbo Hiria Pop-rock lehiaketako sari nagusia. The Yellow Big Machine eta Moby Dick taldeei –bigarren eta hirugarren sarituak, hurrenez hurren– nagusitu zitzaizkien azaroaren 27an Bilborock-en, jendez mukuru zegoen kontzertuan.

● Iñaki Beobide Jarrai antzerki taldeko zuzendari ohiak Berrian:

: «Sortu, sortu, gauza garbia da: Hizkuntza. Euskara izan zen Jarrai sortzeko lehen arrazoia. Gure lehen antzerkiak irakurriak izan ziren, 1958an, mahai luze batean eserita eta nork bere papeira irakurriz. Pentsa, 60ko buelta horretara arte ez zegoen ezer, ikastolak ere orduan sortu ziren! Donostian oso euskara gutxi egiten zen, eta gu herrietatik etorritako xelebre batzuk ginen; halako lagunarte bat sortu zen, eta taldea atera zen (...) Gertatzen dena da exijentziak handiagoak direla. Guk edozein bazterretan egiten genuen antzerkia, ahal zen tokian. Gaur egun, beste mila gauza daude. Profesionalak diren talde horietako batzuek erdaraz prestatzen dituzte antzezlan guztiak. Hori da dirua irabazi behar dutelako, hortik bizi nahi dutelako; horretara behartuak daude, horretan sartuak daudelako».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

E-pistola bat idatziko dut, norbaitek erantzun dezan

GENERO EPISTOLARRA (gure arteko hizkeran, gutun-elkartrukea) menostua eta zokoratua izan da urtetan, baina hala ere, ezagun samar bihurtu dira idazle batzuek elkarri urrunetik urrunera bidalitako mezu sortak. Rainer Maria Rilke, adibidez: *Poeta gazte bati idatzia* (*Jakinek duela zenbait urte euskaraz argitaratua*) da haren obra ezagunenetakoa, eta ez da hamar gutunen bilduma besterik. Sonatuak dira Flaubertek Turgenevi idatzi zizkion kartak, baita Voltaire-enak ere (23.000 gutun inguru idatzi omen zituen azken aldiz etzan aurretik; XVIII. mendeko *recordmana* dugu, inondik ere).

Gauza batean desberdintzen dira letra-juntatzaile horiek eta gaur egungo idazleak. Haiek, papera eta luma teknologia bakar, tentuz aukeratu behar zuten esaldi bakoitza orria zikin-belztuta bidaliko ez bazuten. Eta esaldi bakoitzaren izaera definitibo horrek bermatuko zuen testuaren kalitatea editorialentzat.

Horrek behar du izan ze, gainontzean, ez dut ulertzen. Zaila egiten zait konprenitzen, nola XXI. mendean sartuta, oraindik eskuz edo idazmakinez eskribitu ziren gutunen bildumak diren lehengai nagusi genero epistolarrean. Duela gutxi kaleratu da Saul Bellowren korrespondentzia, berbarako. Paperean idatzi eta posta arruntez bidalitako gutunak denak. Eta ez dut esaten gaizki dagoenik, baina... ez al du horrek ofizioaren irudi zaharkitu samarra eskaintzen? Batetik, idazlea fianbre bihurtu den arte ez dira publikatzen gutun-bildumak. Hildakoen genero literario bihurtzen da. Aiton-amonen egiletza soilik onartzen duena.

Bestetik, absurdua da. Munduak, posta elektronikoa iritsi baino lehen, ez zuen amestu ere egingo gaur egungo testu produkzioarekin. Eta idazleek, gehienak



ez baitira amishak, posta elektronikoa erabiltzen dute elkarrekin komunikatzeko.

Zergatik ez da hori material argitaragarria? Zergatik daude mezu horiek Gmail-en zaborrontziren batean hiltzera kondenatuta? Berdin Facebook-eko mezu laburrak, Twitterrekoak... Antologia dotoreetarako emango luketela uste dut. Eta gainera ezagutzen dut idazle bat baino gehiago plataforma horietan idazten aski iaioa.

Saiakerak egin dira euskaraz, blogetako mezuak paperean publikatzeko. Hor daude, urrutirago joan gabe, Markos Zapiainen *Talatik tiroka* edo Xabier Mendiguren Elizegik blogean idatzi zituen testuen bilduma. Baina ni behintzat, zain nago editore bipilen batek noiz argitaratuko dituen idazleekin huntaz eta hartaz trukatzeko dituen e-postak. Zenbait idazleren Facebook-eko mezuak ere gustura leituko nituzke edizio txukun batean emanez gero. Aforismo-bilduma dotorea lirateke. Edo, erabil dezagun garai hauetako terminologia eta dei diezaiogun e-forismo. ■



Natura sentitu

Landa Turismoa
Enpresa Zerbitzuak



Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

ANA ZAMBRANO

FUTBOLEAN, TANTOA ----- ESERLEKU BIGUNA	↓	UGARIA EZ DENA ----- PERTSONAIA- REN IZENA	↓	OREZTA	↓	EUSKAL FONEMA ----- EGIPTOKO JAINKOA	↓	EGUNEROKO JANGAI ----- HEGAZTI MOTA	↓	DUDARIK GABE ----- ABISUAK, MEZUAK	↓	NEBA ----- ADITZEN SUBJEKTUA MARKATZEN DUEN KAUSA	↓
↖		↓		PERTSONAIA- REN ABIZENA ----- ALDE!, OSPA!	→		↓		↓			↓	
TESTIGU ----- ALGARATSU	→			↓				LANDARE BIZKARROIA ----- SUFREA	→				
↖							↓			ZORROTZ, ZOLI ----- OINARRIZKO EDARI	→		
ZEZEN ZIKIRATU	MANGA- NESOA ----- ZALANTZA	→		 CANELADA/ARGAZKI PRESS					↖		BOKAL ERREPIKATUA ----- SALATU	→	
↖	↓		KOMENTUKO BURUA						↖	NORAT ATZIZKIA ----- EZAGUERA IZAN	→		GUTXI GORABEHARA NOR
UNNILPEN- TIOA ----- ZAKUR	→		↓						↖				↓
↖		ROENTGEN ----- ARREN, MESEDEZ	→						↖	SEI KARRATUKO POLIEDRO ----- BAKARRA	→		
JUSTU ----- PERTSONAIA- REN AZKEN NOBELA	→	↓	JANTZI MOTA ----- KRISTO ONDOREN	↓	DAGO ----- HILOBIETA- KO IDAZKUN	↓	BYTE ----- ERREPI- KATUZ, IRAKITEN	→	↓	GOR ----- NAIZEN HONEK	→		
↖			↓		↓		↓		↓			TONA ----- IKUSI (LABURDURA)	→
ZENTZURIK GABE ----- DA, HAIEI	→						BELARRIA- REN HANTURA ----- URANIOA	→				↓	
↖			PIXKA, PITIN BAT	→			↓			TXORI MOTA	→		

	G	B	P	T	O	Z	A
S	O	F	E	X	E	G	N
L	E	K	U	M	I	H	A
Z	A	R	A	S	U	A	R
	M	N			U	R	A
I	D					R	A
U	N	P			J	A	K
O	R	R				K	U
D	O	I	J	D	B	S	O
A	U	T	O	K	A	B	N
Z	O	R	O	K	I	O	T
Z	A	I	E	A	P	U	R
						K	U
						U	K



Ian berriaren aurkezpen emanaldia

Usurbilgo OIARDO Kiroldegian

**2010eko abenduaren 18an, bi saio:
16:00etan eta 18:30etan**

Sarrerak: aurretik 6 euro / egun berean 7 euro
(12 hilabete arteko haurrak doan)

Salgai: Orio (Arkaitz)
Lasarte-Oria (Artizar)
Hernani (Leokadisti)
Usurbil (Bordatxo, Marije eta kiroldegia)

Antolatzailea: ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea.


Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Aurtengoz amaitu da ozono-zuloa

OZONO-ZULO IZENAZ ezagutzen duguna urtero Antartikan eta abuztutik azarora bitartean gertatu ohi da.

Irailean bi aipamen egin genituen ozono-zuloaz ARGIAN. Batean ozono-mailaren eboluzioa azaltzen duen webgunearen helbidea eman genuen (ttiki.com/16013), eta bestean azken urteetan ozono-zuloaren joera gero eta txikiagoa izatea dela azaldu genuen.



Aurten zer gertatu da? Esku artean ditugun datuen arabera, arestian aipatu joera indartu egin dela esan dezakegu. NASAk argitara emandako diagraman ikus daiteke, batetik, 2006. urtean izan zuela zuloak hedadurarik handiena: 26 milioi kilometro koadro. Aurten, zuloak

hemeretzi milioi kilometro koadroko hedadura baino ez du izan. Diagramaren beheko aldeak, berriz, erakusten du aurten neurtutako ozono kantitate txikiena 127 Dobson unitatekoa izan dela, 1994. urteko minimo historikoa (92 Dobson unitate) baino dezente handiagoa.

Joera ikusita optimistak izateko arrazoiak daudelakoan gaude. Datoren urtera arte...

Kolore ilunak hobeto prozesatzen ditugu garunean

PENNSYLVANIAKO UNIBERTSITATEKO (AEB) ikerlari talde batek adierazi duenez, erretinak jasotzen dituen irudiak prozesatzeaz arduratzen diren zelulak ez daude uniformeki banatuta garunean. Kolore ilunak prozesatzen dituzten zelula-multzoak kolore argiak prozesatzen dituztenak baino ugariagoak eta trinkoagoak dira.

Zer adierazten du horrek?

Garuneko zelulek hobeto aztertzen dituztela kolore iluna duten gauzak, kolore argiak dituztenak baino. Ziurtasun osoz esan ezin badaiteke ere, badirudi historikoki gizakia babeslekuetan bizi izan dela eta horiek normalean argitasun gutxiko lekuak izaten direnez gizakiaren genetika horietara egokitu dela.



WWW.RETINAHL.COM

Plastisoil: plastikozko botilak birziklatzeko bidea

Naturak ehunka urte behar ditu kontsumitzen ditugun plastikozko botilak birziklatzeko. Philadelphiako Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek irtenbide interesgarria aurkitu dio arazoari.

<http://ttiki.com/20300> (Frantsesez)

Ugaztun erraldoien jatorria

Science aldizkarian Felisa Smith ikerlariak eta beraren ekipoak argitara emandako artikuluan, lehorreko ugaztun erraldoien fosiletan oinarrituz haien jatorria eta eboluzioa azaltzen dira. Adierazi dutenez, dinosaueroak desagertu ostean ugaztunen tamaina oso azkar handitu zen, eta 25 milioi urte igaro eta gero egonkortu egin zen.

<http://ttiki.com/20301> (Frantsesez)

Argaltzeko dieten arriskuak

Osasun Zuzendaritza Orokorak Frantziar iragartzen diren argaltzeko hamabost metodo aztertu ditu, eta ondorioek argi gorria piztu arazi dute. Arazoaren larritasunaren frogak da argaltzeko metodo bat azaltzen duen liburuki baten hiru milioi ale saldu izana. Horrek frantziar agintariak mugiarazi ditu.

<http://ttiki.com/20303> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak
 multimedia
 aholkularitza
 edukiak

iametza^{interaktiboa}

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hur lizar

GURE MITOETARAKO zein landare egoki jotzen ditudanari tiraka, aurrekoan hurra, *Corylus avellana*, aitatu eta “hur” hitza gure hiztegiko zaharrenetakoa ez ote zen galde egin nuen, bateren batek erantzun zezan. Di-da erantzun dit nafartutako lagun giputx batek. Bere ustetan oso omen da zaharra hitza eta esanahi bitxia ematen dio: “Goian edo zintzilik dagoen edo goitik datorren ontzi baten barruan dagoen bizia”. Hizki bakoitzari bere erroa emanez osatzen du esanahi hori, baina hurra ere ezagutzen du, noski. Zaharrarena ez diot zalantzan jarriko eta bestea, esanahiarena, sinestutzen diot. Hobe batekin topo egiten ez dugun artean... Proposamenak egitea libre da eta ondo etorriak!

Fraxinus excelsior, Lizarraren izena ere ez da barte-koa izango. Ondo lizarrarenak gara bai, gure kulturaren paisaiako kide nagusietako honen besoetako. Amandre ona izango da, berari buruz gaizki esaka aritutako inor ez baitut sekula topatu. Intxaurrondoa, eukaliptoia, pinu beltza, hagina... Zuhaitz asko kakaz-



Beskingo bordaren inguruko lizarrak, Aralarren.

JAKOBA ERREKONDO

tuz ahoa neurri hitz egiten duen jendea ugaria da. Aldiz, lizarra beti da on, altzo, lagun, babes, gozo, abaro, magal, dotore...

Dotore. Lerden, lirain, segail da lizarra, izarren pareko lizar. Mediterrania-rrentzat “basoko Venus” da. Zuhaitzak tximista uxatzen du. Egurra kirtenetarako, lantza pertika timoiatarako... Azala eta hostoa sendagai. Zarba

bazka. Ezin izan bestela, lizarra etxeko. Orri osoa beteko genuke lizarraren toponimoz. Baita Euskal Herri osoa ere. Lizardiak garai bateko gizakien bizitokien arrasto dira maiz. Nola ez dugu bada gure hilerrien ikur? Gizakien arrastoen baldo, mugarri.

Hildakoen aztarna, baina gaurko egunera ederki egokitzen dena. Lizarren ezaugarri bitxienetakoa sexu ugaritasuna da. Landare gehienak hermafroditak edo sexu bakarrekoak dira. Lizarrak arrak, emeak edo tartekoak, bietatik dutenak. Eta xelebreena, etorkizunerako egokituak, urte batean arrak diren arrak hurrengoan eme izan daitezke. Eta alderantziz. Lizarra gure hilerrietara.



JAKOBA ERREKONDO

Gorritik

Udazkena negutzearen margorik baldin bada, margo hori gorria da. Zuhaitzak, zuhaiskak, belarrak, goroldioak... Hostotik baduen guztia gorritu egiten da. Lehentxeago ez bada geroxeago. Baita

itsasoaren epelera makurtzen direnak ere. Garomena gorritzen ari da eta, azkena bada ere, belarra laster gorrituko da, itsasoa gorritzeraino. Itsasoko ispilua gorritzeraino.

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Milimetroko bola erraldoia



Bic Cristal bolaluma 1950ean merkaturatu zuten eta duela bost urte 100.000 milioi aleko salmenta kopurua gainditu zuen. Gaur egun, munduan hamabost milioi Bic saltzen dira egunero.

CLICHY (FRANTZIA), 1945. Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, Marcel Bich-ek eta Edouard Boffard-ek Société PPA izeneko idazteko tresnen enpresa sortu zuten. Gerra garaian Bichek muturrean bola zuen luma ikusi zuen Argentinan, László Bíró-k egina. Enpresa sortu eta gero, Suitzatik metala milimetro ehunenetan ebakitzeko eta lantzeko ahalmena zuen teknologia ekarri zuen. Hala, altzairu herdoilezinezko milimetro bateko esfera ekoiztea lortu zuen, tintaren jario egokia ahalbidetuko zuena. Hainbat saiakera eta gero, loditasun egokia zuen tinta ere lortu zuen. Eta, horrenbestez, Bíróren asmakizunaren lizentzia lortu eta gero, Bic Cristal bolaluma merkaturatu zuen.

Bolalumaren plastikozko hodiak zurezko arkatzetatik hartu zuen forma hexagonala, idaztean egonkortasun handiagoa ematen duelako. Plastikoa gardena erabili zuten, erabiltzaileak tinta maila ikus zezan. Gainera, zulotxo bat ere egin zioten airearen presioa hodi barruan eta kanpoan berdina izan zedin. Milioika eta milioika pertsonak hortzikatuko zuten plastikozko estalkia ere hasieratik jarri zioten produktu berriari.

Bichek produktuan sinesten zuen, kalitatezkoa zen, berria, eta, gainera, ekoizpen kostu baxuei esker, merke sal zitekeen. Hala ere, hasieratik diru asko inbertitu zuen publizitatean. 1953an Pierre Guichenné publizitate exekutiboak produktua izendatzeko Bichen abizena erabiltzekotan, h-a kentzeko aholkatu zion enpresaburuari. Bic gogoratzen errazagoa zen, nazioartean zabaltzeko ego-kiagoa, eta gerra osteko garaian markei izen ahalik eta sinpleenak jartzeko joera zen nagusi. Baina beste arrazoi bat ere bazegoen: Bich izenak ingelesezko *bitch* (emagaldur) hitzaren antz handiegia zuen. Enpresak zein bolalumak izen berria hartu zuten eta 1959an bolaluma merkerik ezagutzen ez zuen AEBetako merkaturatu sartu ziren. 1960an, hamar urte besterik ez zituen Bic bolalumak aurreko idazluma gehienak ordezkatu zituen merkaturatu.

Egun, Bic Cristal New Yorkeko Arte Moderno Museoko erakusketa iraunkorreko pieza da. Eta inoizko “artelanik” salduena da, Bic enpresako ordezkariak, 2005eko irailean 100.000 milioi ale saldu zituztela jakinarazi baitzuten.

Arrastoak

Cervantesen sukaldea sarean

CERVANTES Zentro Birtualak Espainiako Urrezko Mendeko errezetak eta, batez ere, Cervantesen lanetan agertzen diren platerak jaso ditu <http://cvc.cervantes.es/artes/gastronomia> helbidean. Webguneak Maria Ines Chamorro egokitutako 50 errezeta baino gehiago biltzen

ditu eta, horrez gain, Miguel de Cervantesen (irudian) eta idazle garaikideen testuak dauzka osagarri. Besteak beste, haragi-bolak, bakailaoa, aingira, behi zitzi-pitzia, arbendol opila eta antxume errea presta daitetzeko duela bost mendeko erara, baita turroia ere.



José Antonio Pastor

«Egigurenek agian, iritzi baikorregia du Batasunaz»

Ortuella, 1959. Irakaskuntzan aritua. PSE-EEko Bizkaiko idazkari nagusia. Alderdi horretako bozeramailea Eusko Legebiltzarrean. PSEk hauteskunde autonomikoetan emaitzak hobetuko dituela eta Patxi Lopez hurrengo legealdian berriz ere lehendakari izango dela esan digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Txabarri


Bake edo normalizazio prozesu berriaren atarian al gaude? Terminologia hori horrela egokitzen joan da?

Ez, ezin dugu horrela jo. Orain, berez, ez dago bake prozesurik. Ez demokrazian ulertua izan den bezala: elkarrizketa eta negoziazio prozesua Estatuaren eta ETaren —edo Batasunaren— artean; akordioak, enkontruak eta desenkontruak izan zituenak. Oraingo jokalekua ez da hori. Batasunaren gogoeta autonomoa dago, eta hori berrikuntza da. Batasunak garai berrian gaudela pentsatzen du: ekintza bortitzetatik desmarkatu eta ETarekiko bide autonomoa urratu nahi duela dio. Batasunak bere bidean ETA arrastatuko duela pentsatu bide du, beraz, hemen ez dira bi alde ezer negoziatzen ari. Batasuna agian, gogoeta serioa eta bide itzulezina egiten ari da, eta berria oso ona da.

Zer aldatu da zehazki aurreko prozesuarekiko Batasunaren aldetik?

Batasunak orain esaten dituenak aurreko bake prozesuan esan izan balitu, ziur aski, prozesua ez zen Barajasko T-4ko ez tandarekin amaituko. Berak onartzen du hori, auto-kritikoak dira beren jarrerarekiko, alegia, ETarekiko dependentzia gehiegizkoa zutela. Dirudienez, lotura hori apurtu nahi dute orain.

“Alderdien Legeak eskatzen duena beteko duela” esan du Batasunak.





"ETA desagertuko denean, Batasuna demokratikoa den unetik, orduan osatuko dugu alderdien mahaia. Ez alderantziz".

ETArrik ez badago, terrorismoa bukatu bada, molestaturik nau, baina onartu beharko dut ezinbestean" esan zuen. Hori baikorra da. Baina horregatik ez gaude, baten batek esan duen bezala, "ETA gelditzeko edo gelditu bitartean, alderdien mahaia osa dezagun" unean ez moduan. Ez, ez... Hartara, terrorismoa gera dadin, prezio politikoa ordainduko baigenuke. ETA desagertuko denean, Batasuna edo dena delakoa demokratikoa den unetik, orduan osatuko dugu alderdien mahaia. Eta ez alderantziz. Eta honetan denok bat gatoz.

PSEk eta Patxi Lopez lehendakariak zentralitatea betetzen dutela diote behin eta berriz. Alabaina, Batasuna ez dago Legebiltzarrean eta EAJ izan zen alderdi bozkatuena.

Zentralitatea ez da gauzatzen Legebiltzarrean betetzen duzun espazio fiskikoarengatik, defendatzen dituzun jarrera politikoengatik baizik. Euskal sozialistak ikuspegitik zentralitatea horrela gauzatzen da. Ez da alderdi nazionalisten kasua, bistan da. PSEk autogobernuan sinesten du, badu interlokuzioa bi mundu nazionalistekin. Ez naiz ari legez kanpo dagoenaz, EAJrekin eta PPrekin baizik. PSEren jarrera asumituta dago hautesle nazionalistaren eta ez nazionalistaren aldetik. Hori da zentralitatea definitzen duen proiektu politikoa. Beste errealitatea da botoena. Egia da, EAJk guk baino boto eta eserleku gehiago lortu zituela, baina zentralitatea akordioaren bidez gauzatzen da, eta EAJ ez zen horretarako gauza izan. Guk iniziatiba EAJri utzi genion Jaurlaritzara osatzeko, baina ez zuen sostengurik izan, guk bai.

PSE-EEko presidente Eiguren hizpide. Zer deritzozu bere jarrera gatazkaren irtenbideari dagokionean?

Rol oso garrantzizkoa jokutzen du. Batetik, euskal errealitateaz daukan berezko ezagutzaren eta ikuspegi intelektualaren aldetik. Bestetik,

Hori Rufi Etxeberriak esan zuen Iruñeko agerraldian, baina hori bera ez zen azaldu *Garak* publikatutako agirian. Etxeberriak alderdi berriaren estatutu berriak "alderdien legeak ezartzen dituen estatutuak beteko dituela" zioen. *Garak* ez zen azaltzen betebeharrak hori. Ez zuen esaten ere ekintza bortitzak arbuiaztan dituela. Hainbat gauza hitzez esan zuten, baina idatziz ez. Tira, itxaron dezagun, espero dezagun agiri ofiziala argi eta garbi aurkezte. Dena den, esandakoak egundaino esan gabeak ziren, baina hainbat gauza falta da...

Hala nola...

ETAren jarduerak aipatzea. Indarkeriari uko egiten diotela eta bide politiko soila urratuko dutela diotenean, ETAk badu horretan zer esan. Batasunak ez du ETA egiten ari denaz ezer esan, oraindik mehatxu zantzuak izan baitira ETAren aldetik.

Gatazkaren irtenbideari gagozkiola betiere, PPrekin jarrera ikusita zaila dirudi irtenbidea izatea, ezta?

Orain eta hemen ez. Espainian egia da PPrekin tonua kritikagoa dela hemen baino, hemen beti agertzen da susmoren bat: PPK ETArekin

negoziatzen ari garela dio batzuetan. Baina izatez, politika nazionallean [Espainiako] Gobernuaren harremanak PPrekin oso erraza da. Euskadiko PPrekin diskurtsoak badi-tu nabardurak Espainiako PPrekin, baina Patxi Lopez lehendakariak eta Antonio Basagoiti elkarrekiko konfiantza daukate, eta honek laguntzen du azterketa partekatua izaten. Areago, izatez, ETAren eta Batasunaren azken komunikatuez egin ditugun analisiak oso antzekoak dira, eta ez hemengo PPK eta PSEk bakarrik, EAJ ere oso hurbil dago espresioetan. Osa-gai hori oso baikorra da. Hiru alderdi hauen artean analisisa partekatzea, kautela handiz noski, baikorra da. Hirurok egiten dugu bat puntu batean: Batasunari onartzen diogu mugitzen ari dela, baina ez hainbeste ETari. Batasunaren eta ETAren arteko dibortzioa eszenifikatzen ari da, denok baikortasunez begiratzen dugu, bakoitzak bere nabardurekin, baina ETArekiko eszeptikoak gara.

Alderdien arteko mahaia osatzeko bidean al daude euskal alderdiak?

Basagoitiri "ea Miguel Angel Blacoren hiltzailearekin topo eginez gero, agurtuko ote zuen?" galdetu diote orain gutxi. "Une horretan

azken bake prozesuan zuzen inplikaturak izanak aintzat hartzeko datu eta elementu klabe eta baliotsuak eman dizkio. Jesus Egiguren gobernuak terrorismoaren kontra darman politikaren egileetako bat da, politika tinkoa eta espazio zigor gabeak ezarri dituena. Aldi berean baina, Batasunak egin behar duen bideari buruz Egigurenek badu ikuspegi oso baikorra, beharbada, baikorregia. Hobe oker banengo. Nik gure presidenteari gustura emango nioke ehuneko ehunean arrazoiak, horrek bakera bidean batzuek pentsatzen duguna baino azkarragoa aurreratzen ari garela adieraziko bailuke. Dena den, Egigurenek dioena benetan pentsatzen du. Bere pertzepzioak horrela azaltzeko datuak izango ditu, niretzat halere, optimistegia da, hortxe uzten dut gaia.

Zentzu horretan ez al da hobe ere Arnaldo Otegi kalean egotea?

Hori epaileek erabakitzen dute...

Bai, erantzuna ezagutzen dut, baina politikari bezala zer diozu?

Ezin dizut besterik erantzun.

Otegiren antzeko karguak dituzten beste kide batzuk kalean daude.

Bai, baina, erabaki judizial ia guztiak interpretagarriak dira. Epaile batek erabaki bat har dezake eta beste batek antzekoa baina ez berbera. Nik gai horretan epaileekiko errespetua hobesten dut.

Felipe Gonzalezen azken deklarazio ospetsuek zer iradoki zizuten. PSERI faborerik egin ote diote?

Bere hitzak oso gaizki interpretatuak izan ziren, nik ez dut sentitu gure botoemaileen artean Gonzalezen elkarrizketak inolako eskandalurik eragin zuenik...

Ez da hain gutxirako izango ere!

Egia da, berak erabili zuen espresioak hizpidea eman zuen pentsatzeko berak GAL eta Estatuaren terrorismoa justifikatzen dituela. Baina, ez dut uste hori esan nahi zuenik. Gauza bera esan zuen Txileko beste elkarrizketa batean, beraz, ez zen *lapsus linguae* izan, deskuido edo ahanztura... Berak esan nahi zuen,

nik uste, berak ETaren aurka zer-bait gehiago egiteko aukera izan zuela eta ez zuela egin.

Horiek horrela, Gonzalezena zer izan da kasuala edo kausala?

Beno, ez zuen egoera politikoa asko lagundu egia esan. Kasuala edo kausala, ez dakit, ez dakit zer pasa daitekeen presidente ohi baten burutik. Nahita egindakoa edo bilatua izan zen edo *desabogo* moduko bat? Ez dakit.

"Batasunari onartzen diogu mugitzen ari dela, baina ez hainbeste ETari"

Iñigo Urkulluk "Isiltasun Ituna" proposatu du gaiaren inguruan.

Ongi dago, baina hori praktikatu behar da. Izan ere, Urkullu jaunak aldi berean, isiltasun horretan, hitzak erasokor eta etengabe jaurtitzen baititu. Isiltasun Ituna sinesgarria izan dadin, hobe da egitea ezer esan gabe. Aurreko bake prozesua askoz hobeto joan izango zen, komunikabideetan egunez egun ezer kontatu beharrean, gutxiago kontatu izan balitz eta diskrezioz jokatu. Orain ere horixe behar dugu.

"Rufi Etxeberriak zioen alderdi berriaren estatutu berriak 'alderdien legeak ezartzen dituen estatutuak beteko dituela', baina Garako agirian ez zen azaltzen betebeharrak hori"

Demagun, arrazoiak arrazoi, Batasunak ez duela Alderdien Legea betetzen...

Ez da aurkeztuko.

Plataformen bidea urratu lezake...

Ezta ere.

Duela lau urte gertatua errepikatu liteke...

Ez.

Goazen partez parte...

Itxaron, itxaron... Auzitegiek ulertzen badute alderdi politiko berri horrek ez duela betetzen legea, ez da aurkeztu ahal izango. Batasunak oztopoz oztopo aurkeztuko dela dio, nahi dutena baina, ez. Pasa gaitzen beste jokalekura, Batasunak jokatu ohi duen eremura, hauteskunderen plataformetara. Hauteskunderen eta Alderdien legeen azken aldaketekin Batasuna ezin izango da aurkeztu plataformen bidez. Areago, alderdi politiko demokratiko baten barnean joan arren. Demagun, EAren zerrenda batean, udal X batean, 13 izenetik bik Batasunarekin harremana zuzena dutela edo haien oinordekoak direla, bada, legeak baimentzen du bi izenak zerrendatik ateratzea, alderdi horren zerrenda legez kanpo laga gabe.

Bi galdera jan dizkidazu. Alegia, Alderdien Legea ez al da antidemokratikoa bere jardueran?

Ez, ez, ez da antidemokratikoa. Salbuespenezko legea da...

Erantzun hori ere ezagutzen nuen.

Bai motel. Plataforma elektoral asko eta anitzak izango dira auzo eta herrietan. Baina hitz egiten ari gara, hitz egiten ari garenaz, *Solitario*an amarrurik egin gabe. Alegia, Batasunak inspiratutako plataforma elektoralaz ari gara. Batasuna Alderdien Legea gainditzeko egin behar duenaz ari gara biok ala biok, edo saiatzen ari gara, ezta?

Bai baina...

Pertsona horiek Batasunarekin harremanik ez dutela edota oinordekoak ez direla ageri bada aurrera, baina kontrakoa frogatzen bada...

Benetan konfiantza duzu legean?

Legegileak horretarako legistatu du. Epaileek nola interpretatuko duten, ni ez naiz sartuko. Areago, aurkeztu badira ere ez dugu batere beldurrik, gaiaz asko hitz egiten duen beste batek beldur gehiago dauka...

EAJz ari zara, Aralarrez?

EAJ dut buruan batez ere. ■

argia.com Udal eta Foru hauteskundeetako EITBz galdera-erantzunak.

Iñaki Martinez de Luna

«Iritzi publikoaren bataila irabazi ezean, euskarak ez du etorkizunik izango»

Iñaki Martinez de Luna (Gasteiz, 1950) Soziologia doktorea da eta EHUⁿ Elikadura eta Kultura eta Gizarte-ikerikuntzarako Teknikak ikasgaiak ematen ditu. Azkenaldian soziologo baino soziolinguista gisa ezagunagoa egin da; besteak beste, Hiznet Hizkuntza Plangintza Graduondoko zuzendaria da. Euskararen normalizazioan, herritarrekin egin beharreko pedagogia lana azpimarratu du.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Josu Txabarri

EHUKO FAKULTATEAN elikaduraz eta kulturaz aritzen dela jakiteak harridura sortu digu, gasteiztarra soziolinguistatzat baikenuen: “Soziolinguista ni? Etiketa hori zintzilikatu didate, eta ni harro eta pozik, baina ez da nire hautua izan. Soziologoa naiz formazioz eta ofizioz, eta gero euskararen militantea. Bat egin dute bi gauza horiek, eta etiketa horri ez diot ezetzik eman inoiz”.

Euskaltzale gehienek garai batean baino jarrera soziolinguistiko helduagoa daukatela idatzi duzu.

Bidea egin dugu, hainbat urtetako eskarmentua daukagu. Beti adibide bat jartzen dut; 1978-79 ingurua izango zen, Deustun ikasi nuen, euskararen inguruan zebilen auzoko talde batean esaten zen: “Bost urteko epea emango dugu jende guztiak euskara ikas dezan eta epe horretan ikasi ez duena bidali egingo dugu”. Hori zen soziolinguistikari buruz geneukan ezagutza maila. Horrekin batera zihoan, ikaste hutsarekin bazetorrela erabilera, eta dena bideratuta zegoela. Begira nondik abiatzen ginen. Zorionez, edo, hori oso atzean geratu zaigu. Orain badakigu zer den hizkuntza-

ren berreskurapena. Ez dugu asma-tu oraindik...

... formula magikoa?

Horixe! (barrez). Baina konsziente gara horrek eskatzen duen ahaleginaz, dituen zailtasunez... bada zerbait. Gaur egun euskalgintzaren ezagutza maila altua da eta horretaz hitz egin dezaket. Unibertsitatean

“Errotu den diskurtsoa ondokoa da: hizkuntza inposatutako kontua da eta askotan diskriminazio tresna bezala erabiltzen da. Pentsaezinak diren giroetara ere hedatu da, hala nola, militanteak ez baina euskaltzaleak direnengana”

ematen nituen eskolak, hitzaldiak euskalgintzan... Lehen lau gauzatxo esatearekin nahikoa zenuen, jendea harrituta eta liluratuta geratuko zen entzundakoarekin, deskubrimendua zelako. Gaur egun prestatuta joan behar duzu zerbait esatera.

Erantzun egiten dizute.

Defraudatu egiten dituzu. Ikastaroren bat ematen baduzu, ariketen bitartez ikusten duzu jendeak zer maila daukan. Hizneten bertan ikusten da jendearen maila: honi erantzuteko, ostra! Alde horretatik euskalgintzak pauso ikaragarriak egin ditu.

Euskalgintza formatu bai, baina iritzi publikoaren bataila irabazi behar dugula diozu.

Aitzindaritzza oso aurrean dago, ondo jantzita dago erronkei aurre egin ahal izateko, baina hizkuntza gizarte horren zati da, eta hizkuntzak bizirauteko behar du gizarteak hizkuntza horren gorabehera guztiak bere egitea. Orain dela urte batzuk euskalgintza ez zen bezala, gizartea ez da konsziente hizkuntzaren berreskurapena zer den, zein nekeza den, zein inplikazio behar den... Gizartea ez bada konsziente hizkuntzaren arriskuez, bada, egoera ez da ideala.

Iritzi publikoak kontrakoa ez baizik eta euskararen aldeko jarrera duela hartuko al dugu kontuan?

Kaleko jarrera asko aldatu da azken hogeitahogei hamar urteetan.

Duela urte batzuk euskara jakitea miresgarria zen jende gehienaren aurrean, adibidez Gasteizen: “Bada-kizu euskara? Nolako zortea dauka-zun!”. Gaur egun ez da halakorik, eta gainera, errotu den diskurtsoa ondokoa da: hizkuntza inposatuta-ko kontua da, halabeharrez ikasi behar da, gogoz kontra bada ere. Lanerako exigitzen dizute eta hori dela-eta askotan diskriminazio tres-na bezala erabiltzen da. Hori zen duela ia hamar urte piztu zen dis-kurtsoa, eta pentsaezinak diren giroetara ere hedatu da, hala nola, militanteak ez baina euskaltzaleak direnengana.


Hori sinisterra ere iritsi gara, derrigor-tasuna, alegia.

Diskurtso hori euskaltzaleak ez ziren giroetan sortu zen, baina horraino hedatu da. Iritzi publikoa-ren bataila hor dago, bestela euska-rak ez du etorkizunik izango. Azken finean, gizarteak uste badu ez duela ahaleginik egin behar egoera gutxi-tuan dagoen hizkuntza horren alde, baizik eta “rollito” onarekin ibili behar dela... bada orduan bai, nagu-sia den hizkuntzaren alde egingo dugu beti denok eta kito. Horrela ez dago egoera deserosorik inorentzat, ezta? Baina nora doa hizkuntza planteamendu horiekin? Kontua da jendea formatzea, eta beraiek jabe-tzea hizkuntzaren eguneroko borroka, trintxeretako borroka, zein garrantzitsua den. Jende askok ez daki hori, eta oraindik pentsa-tzen du seme-alabak eskolara bidal-tzearekin nahikoa dela.

Jendeari lagundu egin behar zaio gogoeta egiten, bestela, batetik, inposizioaren diskurtsoa, eta beste-tik, pragmatismo ekonomizista nagusitzen dira. Hausnarketa piztu behar da parametro berrien esku-tik, eta parametro horietako bat da hizkuntzen ekologiarena, berdinta-sunarena... Diskurtso hori filosofi-koki oso borobila da. Gertatzen dena da, filosofia askorekin bezala, egunerokotasunean ez daukala indarrik.

Zer esan nahi duzu horrekin?

Sinistuta ere, konbentzimendu han-dia izanda ere, begira zenbat gose dagoen munduan. Zer egiten dugu



“Hizkuntzen ekologiaren diskurtsoa oso konsistentea da berez, baina aplikatzerakoan ez dago nondik heldu, euskarriren bat behar da ondo heltzeko”.

gosearen kontra? Ezer ere ez. Eko-logia dela-eta, zein da gure egunero-ko jarduna? Ordenagailua gauean martxan utzi pelikula jaisteko, kotxea hartu zeren bestela gehiago itxaron behar dut autobusa hartze-ko... Gauza bat da konbentzimendu eta beste bat konbentzimendu hori praktikara eramatea. Hizkun-tzen ekologiaren diskurtsoa oso konsistentea da berez, baina aplika-tzerakoan ez dago nondik heldu, euskarriren bat behar da ondo heltzeko.


Dena dela, orain enpresa mun-duan dabilta kontu horiek lantzen eta polita da.

Eta aurkitu al dute euskarria?

Filosofia abstraktu potente hori sis-temaren muinean, hau da, ekono-mian, txertatzeko aukera izanez gero, orduan bai. Enpresetan hiz-kuntzen ezagutza eta erabilera gero eta ohikoagoa denez, ea nor den kapaza esateko, “euskara ez, e!”. Gogorra da; txinera, alemana eta beste onartu behar badituzu zerga-tik ez euskara? Kontua da hausnar-tzea zein hizkuntza zertarako, zein baldintzetan... Nola aurkitu oreka inongo hizkuntzarik kaltetu gabe.

Funtzio banaketaz-eta ari zara?

Adibidez. Kontua da jada diskurtso



Euskararen normalizazioaz: "Orain arte lidergoa non egon da? Askotan administrazio publikoan, agian beste aukerarik ez zegoelako. Gero hori politizatu egin da eta boterea eta kontraboterea sortu dira. Orain dialektika hori ari da ezabatzen, baretzen edo bideratzen".

hori, hizkuntza guztiek eskubidea dutela-eta onartua dela enpresa munduan eta lan ildo interesgarria izan daiteke. Gainera, mundu horretan dabilzan euskara teknikariek oso formazio sendoa dute, ikuspuntu horretatik baldintza oso onetan gaude.

Bestalde, Topagunearentzako egin dudana gogoetan diskurtso berria proposatzen dut, ez euskararen aldeko diskurtso bakarra, orain arte izan den bezala, hau da, gehienbat identi-

tatean oinarritutakoa. Euskalgintza abertzaletasunaren planteamenduetan mugitu izan da. Horrek balio du, niri balio izan dit, baina ez du balio jende guztientzat.

Badiozu, ordea, nortasunaren kontzeptuak balio izan digula euskara erabiltzerakoan motibazioa izateko eta horren ordezkorik ez dugula aurkitu. Bada besterik?

Hizkuntzen ekologiarena, bada. Gainera, osagarriak izan daitezke,

nola kudeatzen den abertzaletasunean eraikitako diskurtsoa. Adibidez, irakurria dut artikulu polita zeina iristen den erdaldunak aipatzeraino. Alegia, erdaldunak ere erakarri beharko ditugula. Bai, baina nola? "Gure hizkuntzak, euskarak, bakarra izan behar du", eta horrelakoekin erakarriko ditugu erdaldunak? Hori baztertzaila da. Horregatik diot, askori, zorionez, nortasunean sortutako indar hori beharrezkoa zaigu, balio digu, baina abertzale sentitzen ez direnekin zer egingo dugu?

Diskurtso integratzaileagoa behar da, ideologiaren gainetik doana eta horretarako hizkuntzen ekologiaren diskurtsoak balio du. Gainera, diskurtso abertzalea eta hizkuntzen ekologiarena barneratzen baldin badituzu, bada bi motibo hizkuntzaren alde egiteko. Bakarra denean, motiboa bai, baina ahulagoa da. Bi motibo dituzu, eta euskal gizartean istilurik ez sortzeko aukera bakarra, zeren bestela hizkuntzaren gorabeherekin istiluak sortzea oso erraza da.

"Txarrena ezjakintasuna da, horrekin ez goaz inora, zeren denak dira aurreiritziak, aldekoak edo kontrakoak, baina astoen pare, itsu-itsuan"

Gasteizen adinekoei hitzaldiak eskaini dizkiezu hizkuntza aferaz. Inposizioaren diskurtsoa barneratuta zutenak "tolerantzia lezioa eman diguzu" esanez hurbildu zaizkizu gero. Zenbaiten kontzientzia zirikatzea lortu duzu.

Aurreiritziak dauzkagunean hainbatetan ezagutza faltagatik izaten da. Egoera ezagutu eta gero hasten zara ulertzen, eta behin egoera ulertuta pieza bakoitzak bere lekua dauka. Txarrena ezjakintasuna da, horrekin ez goaz inora, zeren denak dira aurreiritziak, aldekoak edo kontrakoak, baina astoen pare, itsu-itsuan. Gainera, ezjakin zarenean, klitxeen bidez argudiatzen duzu, "bai!", "ez!".

“Euskalgintzako interes kontrajarrien arteko ika-mikak baretzea lortu da”

Euskalgintza sasoiko dagoela diozu, baina koordinazio beharrean.

Ez dakit hitza koordinazioa den. Behintzat lortu da interes kontrajarrien arteko dinamika hurbiltzea edo ika-mikak baretzea. Hori lortu da, eta inportantea izan da. Beste pauso bat faltako litzateke, gogoeta partekatua eta estrategia partekatua. Agian oraindik pauso batzuk falta direla egoera idealera iristeko? Adibidez, Topagunearen inguruan dagoen dinamika, uste dut, badagoela heldutasun nahikoa puntu horretara iristeko. Oso pozik nago han antzemandako giroarekin, jarrerekin, interesarekin.

Orain euskalgintzan egosten ari den gauzarik inportanteenetakoa al da Topagunearen hausnarketa?

Garai batean egiten zena ez dut ezagutzen eta ez daukat konparatzeko aukerarik. Alabaina, XXI. mende hasiera hau berezia da, aldaketa egoera da eta parametroak ez daude garbi inon. Euskalgintzarentzat ere oso abagune polita da jauzi kualitatiboa egiteko, planteamendu eta dinamika berriak abian jartzeko, gizarte mugimendu bezala. Euskararen aldeko gizarte mugimenduaren lehen pausoak ondokoak izan ziren: kontzientzia hartu, oinarritzko lanketak planteatu, inoiz eskaini ez ziren euskarazko zerbitzuak herri mailan antolatu, aisialdiko hainbat kontu, sentsibilizazio saioak... Baina oraindik mugimendu horrek ez du bere egin hizkuntzaren aldeko lidergoa bere osotasunean, alegia, diskurtsoa sortu, komunikazioa landu gizartean... estrategia eta instrumentu guztiak baliatuta. Uste dut hori dela orain eman beharreko jauzia.

Orain arte lidergoa non egon da? Askotan administrazio publikoan, agian beste aukerarik ez zegoelako. Gero hori politizatu egin da eta boterea eta kontraboterea sortu dira. Orain dialektika hori ari da ezabatzeko, baretzeko edo bideratzeko. Ez nuke esango boteretik eta kontraboteretik behar ez denik, batzuetan bai, besteetan ez. Egin beharreko galdera da: Une honetan hori behar da ala ez, denok konpartitzen dugun helbururako?

Orain arte lidergoa non egon da? Askotan administrazio publikoan, agian beste aukerarik ez zegoelako. Gero hori politizatu egin da eta boterea eta kontraboterea sortu dira. Orain dialektika hori ari da ezabatzeko, baretzeko edo bideratzeko. Ez nuke esango boteretik eta kontraboteretik behar ez denik, batzuetan bai, besteetan ez. Egin beharreko galdera da: Une honetan hori behar da ala ez, denok konpartitzen dugun helbururako?

Klitxeak, besteek emanak.

Bai, bai, noski. Horregatik da oso inportantea ezagutzea eta ulertzea. Horrela bestearen planteamendua ulertzeko, eta agian, onartzeko ere gaituago zaude. Hori da gaur egungo erronka, gizarteak euskara bere egin behar du eta ezjakintasunean ez du bere egingo. Herrietan gertatzen ari dena da: “Baina badago euskara elkartearen herria”. Baina zuek kultur elkarteak zarete, zuek euskaltzaleak zarete, hizkuntza guztion kontua da, ez euskara elkartearena.

Zuk geroko batean ikasi zenuen euskara. Ezjakintasuna gaintzeaz, iritzi publikoa formatzeaz hitz egin duzu. Nola konbentzitu zintuzten zu euskara ikasteko, edo nola konbentzitu zenuen zeure burua?

12 urterekin udalekutara joan nintzen Sitgesera [Kataluniara]. 25 arabar ez euskaldun geunden eta 75 katalan. Katalanek katalanez egiten zuten, Arabako baskitoek gaztelan egiten zuten. Jantokian eta laguntzen gauden eta hangoek katalanez egiten zidaten. Nik frantses pixka bat banekien, ulertzen nien eta jarraitzen nien. Behin ez nion ulertu eta: “Baina ez zara katalana?”, “Ez, euskalduna naiz”,

“Orduan euskaraz jakingo duzu”, “Benoa... zerbait...”, “Esan zerbait euskaraz”, “Txakurrak kanpora!”. Tutik ere ez nekien. Horrek pentsarazi zidan.

Garai hartan horrek funtzionatzen zuen, beraz.

Nekane Jausorok eta biok lan bat egin genuen euskaldunberriei buruz. Aztertu genuen euskaldundu diren batzuek zergatik pausoa ematen duten eta hitz egiten hasten diren, eta zergatik beste batzuek, nahiz eta maila ona lortu erabiltzeko jauzia ez duten ematen.

Unibertsitatara 25 urterekin joan nintzen eta euskaldunekin

ibiltzea erabaki nuen. Orduan, irakaskuntzan, euskaltegietan, ez zegoen erabilerarako pausoa emateko estrategia planifikaturik; mintzapraktikako saio batzuk izaten ziren, gehienetan derrigorrezkoak ez zirenak. Askotan esan izan dut iruzurra egiten zela. Ikasten hasten zen guztiari jakinarazi behar zitzaion, gaitasun maila bat lortu behar zela, baina maila batetik aurrera asteen horrenbeste ordu praktikatu egin behar zela. Hori ez zen esaten. Nork bere buruari iruzurrik egin ezean, zintzo aritu behar zuen, berdin amarekin, lagun koadrilarekin edo lanean, euskara praktikatzeko. ■



Brasillrunen
Colon, 62 IRUN Tel. Fax. 943. 61 50 79



SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es

Jean-Baptiste Coyos euskaltzain oso

HIZKUNTZALARI zuberotarra (Maule, 1952) proposatu zuten Jean Haritschelhar, Jean-Louis Davant, Txomin Peillen eta Andres Urrutiak, euskaltzain oso izateko. Coyos-ek Jean-Louis Davanten tokia hartuko du, azken hori euskaltzain emeritu izendatu baitute.

HIESaren lexikoa sarean

UZEIK prestatu zuen HIESari buruzko hiztegia HIESaren Nazioarteko Egunerako, abenduaren 1erako. Hiztegiak termino berrienak bildu ditu eta www.uzei.com helbidean dago.

Liburuxka bana etorkinen harreraz eta euskaldunon jarreraz

EMUN kooperatibak bi liburuxka argitaratu ditu. Kataluniako Plataforma per la Llenguak eginak zituen bi lan hartu ditu oinarri. Lehenengo liburuxkak TELP tailerretako mamia biltzen du eta euskaraz egiterakoan egunero sortzen zaizkigun egoeretan baliagarri izan daitezkeen arrastoak ematen ditu. Bigarren gidaliburuak atzerrikak datozenei, hizkuntza kontuei dagokienez, nolako harre-
ra egin laguntzea du helburu. Bi liburuxkak www.emun.com-en daude.

BAHEA

Ana Telletxeak *Noticias de Gipuzkoan* esanak:

“Hizkuntzaren bestelako alderdiak –antzinatasuna, lehenagoko hedadurak, ahaidetasunak, bizi-baldintzak...– edozein kasutan, balioak dira, baina gure hizkuntzaren esku-bideak errespetatu daitezen eskatzeko ez dugu inolako pedigririk aurkeztu beharrik. Hizkuntza esku-bideak hizkuntza guztientzat berdina beharko lirateke –nolanahikoak direla–, guk ez dugu besteek baino justifikazio handiagoa eta pisuzkoagoa eman beharrik euskarak errespetua, zaintza eta miresmena jaso ditzan”.

Jose Luis Alvarez Txillardegik

Garan esanak: “Badakigu, edo jakin egin behar genuke, hiru faktorek markatzen dituztela euskararen mugak: 1-Ezaguera maila minimo-tik behera, ezinezkoa dela euskarak beharrezko maila lortzea. Alegia, erdaldun elebazarren maila jaitsi behar dela, derrigorrez. Eta horrek prezio politikoa duela. 2-Ez dela egia, faltsua dela, euskaldunon leialtasuna txikia dela. (...) 3-Euskaldunon kontzentrazio geografikoa (hau da, gizarteko anisotropia) guztiz beharrezkoa dela erabileraren kota jasotzeko. Nahiz honek, berriz ere, prezio politikoa izan. Euskararen bakartasuna, edo nagusitasuna, lortzeak ondorio politikoak izango ditu. Eta badakigu. Belaxkakeriek ez daramate inora kasu hauetan. Egia ikusi behar da, eta garbiki esan herriari: politikari maltzurak eta ezjakinak salatuz”.

Iñaki Beobide Jarrai *antzerki taldeko zuzendari* *ohiak* *Berrian* esanak:

“Profesionalak diren talde horietako batzuek erdaraz prestatzen dituzte antzezlan guztiak. Hori da dirua irabazi behar dutelako, hortik bizi nahi dutelako; horretara behartuak daude, horretan sartuak daudelako”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@doan) e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Kutxa publikoen harrapaketa

“Merkatuek” –banka, pentsio funts eta finantza erakunde handiak– inoiz ez bezala kontrolatzen dute politika, Espainiako eta Frantziako Estatuena, baita Europa osoarena eta munduko zati handienarena ere. Gobernuak indarrak gabe eta mendea harturik ikusten dute nola ari diren egiten historian izandako kutxa publikoen harrapaketa multimilioidunena. “Merkatu” boteretsuen menpe dauden gobernu horiek egunero gero eta gehiago errenditzen dira hauen esanetara. Eta finantza krisi hau sortu zutenak –liberalenak, Estatuaren interbentzioaren kontrakoak– dira orain, euren galerak herritarren ongizatearen kontura sozializatu nahi dutenak.

Jada “erreskataturiko” herrialdeak edota mehatxupean daudenak, erreskate hori urte askoan ordaintzera beharturik aurkitzen dira, zergak igoz eta prestazio eta eskubide sozialak murriztuz edo kenduz. Hori da “erreskate” deitu izan zaien horien atzean dagoena: Grezia, Islandia, Irlanda... eta etorriko direnak. Argiago: “erreskateak”, Alicia Stürtze historialariak dioen moduan, banka pribatuaren onurarako kutxa publikoen harrapaketa multimilioiduna baino ez dira, eta harrapaketa hori da, hein handi batean, langile gehienoi endosatu nahi diguten defizitaren eragile, gutxi batzuk itsuski aberasten diren bitartean.

Gobernuak izen-abizenekin seinalatu beharko lituzkete harrapaketa horren erantzuleak. Esan dezatela zein diren merkatu horiek eta atzean ezkututzen dituzten espekulatuak. Eta haiengana jo dezatela. Ongi etorria izango litzateke EAJK proposatutako espekulazioaren kontrako paktua, ekonomia nazioarteko finantza merkatuen espekulazio mugimenduetatik babesteko. Dena den, beldur gara hauteskundeetako marketin itxura hutsa ez ote den izango.

Juan Mari Arregi

Biktimak bake prozesuaren beharrean

ESTATUAREN BIKTIMEN onarpenarekiko urrats esanguratsua eman zen joan den astean. Nabardura eta desberdintasun handiekin bada ere, Eusko Legebiltzarrak onartu egin zuen Unesco Etxeak Estatuaren biktimei buruz Eusko Jaurlaritzarentzat egindako txostena. Baina bistan da asko falta dela: izenak, kaltetuekiko aitortza pertsonala, justizia bideak, kalte-ordainak, torturatuak... ETaren biktimei azken urte luzeetan erakunde publikoetatik egin zaien aitortza hori alegia.

Bide egokiaren zantzua da, zalantza barik, baina oraindik ere biktimen gaiaren sakonera iristeko bide garrantzitsua falta da arrazoi askorengatik. Nagusiki, oraindik ere adostu behar delako nor den biktima, zein mailatan eta biktimekiko onarpenaren azken helburuak zeintzuk diren finkatu behar direlako: sufrimenduaren onarpena, justizia, memoria eta berradiskidetzea (elkarbizitza, bizikidetzea...).

Biktimen gaia ezin da garatu irabazle eta galtzaileen ikuspegitik, behintzat euskal gizartea gutxieneko kontsentsu berri baten inguruan berreraiki gura bada, elkarbizitza eta bizikidetzea benetan helburu badira bederen. Eta helburu horiek nekez beteko dira, aldi berean bake prozesu bat aurrera eramaten ez bada. Azken 50 urteetan izan den gatazka bortitzaren ondorioak bideratuko dituen bake prozesu bat, gatazka politikoari irtenbidea emango diona eta, giza eskubideak oinarri, eskubide urraketak izan dituzten pertsona guztiak aintzat hartuta.

Gaur gaurkoz, ordea, hori da saihestu gura dena: motibazio politiko duen gatazka bortitza izan dela —dela oraindik ere— onartzea, eta horrek kolore askotako biktimak ekarri dituela. Egia da ETA



oraindik bizirik dagoela, eta ez gaudela bake prozesu formal batean —eta akaso geroago ere ez—. Egia da oraindik giza eskubideen urraketak bizirik direla eta, egia esateko, une honetan gehiago Estatuaren aldetik ETaren aldetik baino. Egia da testuinguru horretan Estatu eta bere defendatzaileentzat, gaitza dela biktimen gaia bake prozesu baten testuinguruan kokatzea. Baina bide hori egin egin beharko da, ez da beste biderik, biktima guztien sufrimendua onartzen bada, eta buruan elkarbizitza eta berradiskidetze soziala baldin badugu behintzat.

Alde bakoitzak bere denbora behar du egokitzeko eta hori onar dakioko Estatuaren aldeari, baina argi izanda irabazle eta galtzaileen diskurtsoak ez duela etorkizunik, euskal gizartearen zati oso handi batek —gehiengo handiak seguruenerik— ez duela onartzen eta diskurtso horren gainean ez dagoela elkarbizitzarako aterperik eraikitzerik.

MEMORIA klabea da pertsona eta gizartearen garapenerako, memoria pertsonala eta memoria kolektiboa. Memoria pertsonala bakoitzak garatu eta moldatzen du, bere pertzepzioen moldaketaren arabera. Baina kolektiboa desberdinen artean egin behar da, eta horretarako gatazkaren ikuspegi desberdi-

nek beren memoriaren berrazterketa kritikoa egin beharko dute, nonbaiten gutxieneko kontsentsu batera behintzat iristeko. Eta, biktimizekiko bederen, gutxieneko kontsentsu hori printzipio honen gainean egiten da: moralki sufrimendu guztiak dira berdinak. Hori da Hego Afrikan Desmond Tutu artzapezpikuak Egia eta Berradiskidetzearen batzordean printzipio moduan finkatu zuena.

Agi denez, ezker abertzaleak egin beharko du iraganaren azterketa kritiko hori. Baina beste horrenbeste Estatuaren hariak bideratu dituzten indar politikoek, funtsean PPK eta PSOEk. Eta seguruenerik hemen ere beharko dugu Egiaren gisako batzorderen bat, gatazkak eta bake prozesuak bizi izan dituzten beste herrialdeetan moduan, biktimen inguruko gutxieneko kontsentsu hori egituratzen lagunduko duena. Funtsean, herriarrok jabetu beharko dugu elkar bizitzaren benetako beharraz, gure politikariak eta instituzioak ere norabide horretan bultzatzea ditzagun.

Frankismoak garaile eta garaituen gizartea eraiki zuen, baina horren ondorioak larriak izan ziren espainiar gizarte kohesioarekiko. Zeresanik ez euskal gizarteari dagokionez. Euskal Herrian, bukatu gabeko trantsizioa burutzeko ordua da. Zein den kontsentsuaren esparrua, zein lehia politikoarena, hori da finkatu behar dena.

PELLO ZUBIRIA

Abraham Serfaty, judu marokoar gorri menderakaitza

Marokoko Marrakechen hil da Abraham Serfaty komunista zaharra. Hassan II.ak 17 urtez preso eduki zuen buruzagi ezin eresia itzali da 84 urtetan, palestinarrei laguntzen zien judu antisionista, Sahararentzako autodeterminazioa eskatu zuen marokoarra. Hori eta gehiago, Magrebeko askapen prozesuetako progatonistetako bat joan da.

GORA SAHARAKO ERREPUBLIKA. Gora Marokoko Errepublika. Eta gora Marokoren eta Sahararen arteko batasuna” oihukatu omen zuen 1977ko urrian 138 militante gehiagorekin batera egin zioten epaiketaren amaieran. Azaroaren 18an hil da, polizia marokoarrak Aaiun ondoko Gdeim Izik kanpamendua sarraskitu eta hamar egunera.

Esaten dute 2001ean argitaratu zuen liburu honen tituluak definitzen duela Abraham Serfaty: *L'Insoumis. Juifs, marocains et rebelles*. Beste liburu batek salbatu zion bizia. Gilles Perrault kazetari eta idazle frantsesak 1990ean *Notre amie le Roi* plazaratuz ezagutarazi zuen Marokoko Hassan II.aren alderdi iluna, tartean Tazmamart espetxe beldurgarria, non erregeak itxita zeukan Serfaty beste burkide kondenatuekin batera. Hassan II.ak, aurpegia garbitu nahian, zulotik atera eta Frantziara espulatsu zuen. Mohammed VI.ak 1999an baimenduko zion berriz etxeratzea.

Abraham Serfaty jaio zenean, 1926an, oso bestelako mundu batera erori zen. Maroko Frantziaren protektoratua zen eta Magreb osoan ugariak ziren kolonia juduak, nagusiki Espainiatik kanporatutako sefarditak. Ezkerreko judu antisionista omen zuen aita. Semea bide berari jarraituko zitzaion.

Hamazortzi urterekin Marokoko Gazteria Komunistan sartuta, Frantzia ondo ezagutu zuen, bertara ingeniartza ikastera joanda. 24 urterekin, ezkondua eta haur txiki baten aita, lehenbizikoz ezagutuko du espetxea, ondoren Frantziako erbestea, 1956an independentziarekin itzultzeko.

1960tik 1980ra Marokok Hassan II.aren diktadurazko *berunezko urteak* saltsaren erditik ezagutu zituen Serfaty. 1965ean, agintari frantsesen konplizitatearekin Hassan II.ak Hahmed Ben Barka politikaria bahitu eta desagertarazi zuen garai berean, Casablancan istiluak izan zirela-eta beste militante sail batekin batera Serfaty arrestatuko dute eta latz torturatuko. Josephine emazteak berak ezingo du suportatu senarrak militantzia arriskutsuan segitzea eta alde egingo dio Frantziara.

1967. urtea gorriz markatuta daukate Magreben bizi ziren juduek: urte hartan “Sei egunetako gerra” lehertu zen Israelen eta estatu arabiarren artean eta ondoren milaka juduk ihes egin behar izan zuen jaio-territik, minoria legez mende luzetan ezagututako bizimodua ezinezko bihurturik. Marokotik berdin alde egin zuten Serfatyren lagun ugarik.

Gilles Perraultek diaspora judu hartako kide ezkertiarren deskribapen aberatsa idatzi zuen *Un homme*


Abraham Serfaty idatzi zituen liburuetako bat ageri da irudien artean. *Ecrits de prison sur la Palestine*. Judua izanik eta sionismoaren kontrakoa, palestinarren eta israeldarren arteko lehen harreman konplikatuetan ibili zen. Beste bi argazkiak Marrakechen eginek daude, gizonaren zahartzaroan. *Maroq-Hebdo* astekariak publikatutakoan Christine Daurek pusatzen dio Serfaty daraman kadirari. Zazpi liburu plazaratutako idazlea da Daure, batzuk bere militantzia politikoari lotuak (*Tazmamart* 1992an espetxe ikaragarriaz argitaratu zuena, artean preso zegoen Serfatyrekiko harremanez 1993an plazaratutako *La meroire de l'autre...*), bestetzu sormenezkoak, hala nola *La femme d'Ijouak*, agian bere obrarik ezagunena, Atlas mendietan girotutako nobela. 1997an, artean atzerriraturik zeukatela, Sabino Arana fundazioaren saria jasotzera etorri zen Bilbora eta hemen hitzaldi hunkigarria eskaini zuen bere borrokaz.

apart liburuan. Honetan Henri Curiel-en bizi eta heriotza kontatu zituen, beste NET HURBIL batean laburbildu genuenez. Orain jakin da Curiel eta Serfaty elkarlanean aritu zirela garai hartan juduen eta palestinarren arteko lehenbiziko harremanak bideratzen. Curielek bizia galdu zuen borroka horretan. Serfaty liburu bat idatzi zuen espetxetik gai beraz: *Ecrits de prison sur la Palestine*.

17 urte infernuan

Polizia fitxa edukiagatik gizon argia izan behar zuen, zeren eta 1968an Office Chérifien des Phosphates enpresa publiko erraldoian goi postu batean ari baitzen lanean. Gutxi iraun zuen: Khouribgako meategietan langileek greba antolatuta, zuzendaritzarekin bat egiteko partez beharginekin elkartu baitzen. Kalera. Ondorengo lau urteetan irakasle aritu beharko du.

1970ean Marokoko Alderdi Komunista utzi zaharkituta gelditu delakoan eta *Ila Al Amame* alderdi ezkertiarra antolatu zuten Serfaty eta beste militante oso ezagun batzuek. Legez kanpoko alderdi marxista-leninista honek Sahararen autodeterminazioa aldarrikatzen zuen. 1972an Marokoko poliziak sekulako sarekada antolatu eta *Ila Al Amame*-ren ehundaka militante espetxeratu zituen. Serfaty sasira pasatu zen.



Frantses nazionalitatea zeukan Christine Daure emakume gazteak babestu zuen. Ezkutalekuan jakin zuen bizi osorako espetxera kondenatu zutela epaileek. 48 urte zituen.

Poliziak ezin zuen bera atzeman, baina arreba arrestatu zioten eta egun luzetan torturatu. Familia osoa zebilen aztoratuta. Aita hil zen laster eta arreba segidan. Poliziak mezua helarazi zion Serfatyri, Marokotik ihes egitekotan bakean utziko zutela familia. Hori baino nahiago izan zuen bere burua entregatzea, 1974an. Horregatik ez zioten barkatu, eta Christine Daurek, orduan emaztegai zuenak, hiru urteko kondena nozitu zuen; Maurice semea arrestatu zioten –gaur Kanadan bizi da, tratu txar haien

ondorioak nozitzen ditu oraindik—. Urte eta erdiz inork ez zuen izan Serfatyren berririk.

1977an egin zioten epaiketa. Beste Burgos bat. 139 burkide jutzen zituzten. Amaieran “faxista!” entzun omen zen aretoan. Epaille nagusiak: “Faxista deitu didana ausartuko al da zutik jartzera?”. Eta 138ak altxatu. Epailleak: “Bina aurte gehiago denei, magistratuei ixeka egiteagatik”. Ama batek jende arte-rik: “Paradisuan bete beharko ditu bi urte horiek”. Orduan azken hitza eskatu eta Sarfatyk oihukatu omen zuen “Gora Saharako Errepublika, gora Marokoko Errepublika eta gora Sahara eta Maroko batuak!” fama-tua. Xehetasunok Ahmed Amrik eskaini ditu bere blogean.

Christineri 1985ean baimendu zioten Abrahamekin ezkontzea. Kenitrako presondegian izan zen. Geroztik Christinek bazter guztiak astindu zituen senarra hiltegitik ateratzeko. 1991ko irailaren 13an lortu zuen. Abraham Sarfaty Parisera heldu zen François Mitterrand presidenteak Hassan II. arekin egindako tratuari esker.

Harrez geroztik kadir gorpildu-nean egon da, gaixotasunaren eta kartzelan jasandako bizimoduaren opari. Hassan II.a hil zenean, 1999an, haren seme Mohammed IV.ak baimendu zion sorterrira itzultzea. Marrakechen bizi izan da geroztik. Estatuaren gerra zikinen biktimatzat zegokion kalteordainari uko egin zion, Estatuaren funtzionari izakera berreskuratuta ematen zioten erre-treta saria nahikoa zuelakoan.


Abraham Serfatyren hil ohar ugari plazaratu da egunkarietan. Txema Monterok *Deian* agurra idatzi dio. Denek aitortu diote gizaki eta politikari maila handia, zintzotasuna, Hego Afrikako Nelson Mandelarekin alderatu duenik bada. Aldiz, bere burkide batek, Abdelhamid Aminek, gizon zahartuak eragindako sent-sazio mingotsa azaldu du *Tel-Quel* astekarian.

Lider zaharra 1999ko irailaren 30ean Rabat-Saléko aireportura iritsi zenean, zain zeukan Amine beste 400 militante ingururekin. Serfatyk esan omen zien garai hobeak zetoze-la, Mohammed IV. beste bat dela, agian Marokon errepikatuko zuela Espainian Juan Carlos Borbonek lortua. Burkideen masailetan nahastu omen ziren pozezko malkoak eta etsipenezkoak. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Txillardegi

La banda

Egoera gustatu, edo ez gustatu, ETAre su-etenean dago Euskal Herria. Zertara dator, hortaz, hemendik eta handik, indar politiko unionistek egunero “la banda”

gora eta “la banda” behera errepikatzea?

Nekez sinetsiko du inork jokabide horrek egoera hobekitzen laguntzen duenik. Hain zuzen ere, jokabide horrek pozoindu egiten du giro politikoa.

Bakea behar dela, bakea badatorrela, errepikatzen dute Euskal Herriaren etsaiek. Baina hizkera mingarri horrek prozesua sendotzeko eta azkartzeko balio duenik, nork sinetsiko du?

Inork ez, jakina.

Jokabide zital horrek aspaldiko egoera txarretara garamatza. Orduan ere unionistek orduko gazteak salatzen zituzten –ETAkoak, noski–.

Garai haietan ere, gudari ohiek, zoritarrez, 1936ko gerra galdutako gudari izandakoek, etxeko-jauin ohoratu bihurturik, ETAko gudari gazteak gaitzesten zituzten. Aski zuten zaharrek, 1936-1937 urteetako ekintza heroikoak gogoraztea.

Eta honela erantzuten zuten: “Hi, gazte! Non hengoen hi, gu Intxortan eta Kalamuan, armak eskutan, borrokan ari ginenean? Gazte hintzen, bai; askotan jaio ere gabea”. Eta honek barkatu egiten du dena.

1964. urtean, adibidez, Francok “25 años de paz” haiek ospatu zituenean, gu aspaldiko urteetan mendirik mendi genbiltzanean, sofritu egin genuen, erruz, ospakizun ahalkegarri haiek frankistek antolatu zituztenean, zuek, gazteok berriz, sehaskatik irten berriak (are jaio gabeak ere askotan), zertan ari zineten 1964an?

Guk, gudari zaharrok, lortu dugu oraingo bake giroa. Abileziaz, kalapitarik gabe, eta garaia aldatu direla konturatu garelako.

Eta zisma, etendura, sortu zen; eta abertzale zaharrak eta abertzale gazteak elkarren etsai bihurtu ziren 1960ko hamarkadan. Euskal Herriaren etsaiak pozik: “Lortu diagu, zatitu dizkiagu”. Aspaldiko banderizoak nagusi berriz.



DANI BLANCO

Jende nagusia, izututa gazteen jarreraz, nazkatuta, amorratuta, honela mintzo zen: “Nora goaz honela? Nora eraman nahi gaituzte ‘gazte ero horiek’? (Joxe Azurmendik bere liburu ezagunean argiro erakutsi duenez).

Hala ere, “gazte ero haietxek” Euskal Herriaren pizkunde liluragarria lortu zuten alor guztietan (zaharrak at gelditzen zirelarik), Euskara Batua bultzatu zuten, 1968an Arantzazuko Bileren historiko eta oparoa antolatu zuten.

Orduko gazte ero haiek, orduko “la banda” ziren; nahiz eta gaurko eta modako sintagma berria erabiltzen ez bazuten ere.

Aresti, Villasante, Krutwig, Irigoien, orduko “gazte eroak” ziren. Askotan “gazte madarikatuak”.



Belaunaldi berriak, beti, aldapan gora, eta
belaunaldi zaharra ukatuz sortzen dira. Bizi legea da,
edo Historia legea, nonbait



Baina “gazte ero haiek” gaintitu egin zituzten ordura arte dogma sakratutzat hartzen zirenak. Konparazio baterako, PNV indar abertzale bakarra, eta PSOE ezkerreko aliatu posible bakarra izatea.


Eta, beraz, ETA sobra zela zioten abertzale zaharrek.

Orduko gazteak arrazoi zuten, ordea. Ondoko urteotan garbi agertu denez.

Baina horrela idazten da Historia. Eta alfer-lana da ideia berriak aisa nagusitzen direla pentsatzea.

Belaunaldi berriak, beti, aldapan gora, eta belaunaldi zaharra ukatuz sortzen dira. Bizi legea da edo Historia legea, nonbait. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

Urola Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Fermin Calbetón, 20
Donostia GIPUZKOA

www.restauranteurola.com

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3


Gauaren sakonean Haruki Murakami

3 liburu opari

Donostia GIPUZKOA

www.erein.com

4



Nairobitarra

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5



AZKEN IRABAZLEAK (2254. Argia)

ATXASPI

- Mari Karmen Arrastia Artola (Donostia)

TXOMIN ETXANIZ

- Iñaki Urbistondo Plazaola (Azpeitia)

BIDE ERTZEAN Sarrerak

- Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)
- Mamen Uharte Azpiroitz (Leitza)

AQUARIUMA

- Ibai Mercado Erentxun (Donostia)
- Jesus Gonzalez Esteban (Oiartzun)
- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)
- Jose Ramon Egiluz Ugarriza (Berriatua)

MUNDUKO IPUIAK

- Jose Mari Ilarduia Garitano (Bergara)
- Kontxi Errasti Reparaz (Zerain)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**